

TOKIKOM

2015eko otsaila | 145. zenbakia



Iñaki Beitia

Lauroetar petoa



Derio

Martxoak 6-7

DENDA BAKOITZAREN AURREAN

ostirala, 6: 10:00etatik 20:00etara.

larunbata, 7: 10:00etatik 14:00etara.

NEGUKO

OUTLET

Martxoan eta Apirilean,

Zure merkataritza txartelarekin ordainduz
gero 5, 10 eta 20€-ko bonoak
eskuratu ditzakezu.



* Ausazko bonoak diru partida amaitu arte.



Derio Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkartea Profesionala

anerik paraje!

Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio



Derio



Deriacom



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Igor Elordui, Juan Antonio Trabudua, Jon Goikouria Larrabeiti, Aner Menta, Oihane Goienetxe, Sabin Arana, Xabier Díaz, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salturordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



12 Patxi Laborda



24 Korrika 19



26 Elurra, Txorierrin

- 4** Eritxia
- 5** Laburrak eta albisteak
- 11** Irudietan... Inauteriak, Txorierrin
- 12** Gurean izan da... Patxi Laborda
- 14** Gaztea eta... Patricia Calvo, boxeolaria
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Iñaki Beitia, euskaltzalea
- 22** Korrika 19
- 24** Irati Fernández Pujana, gizarte-hezitzailea
- 26** Elurra, Txorierrin
- 30** Taldeak / elkarteak... Lezamako Pilota Eskola
- 33** Berbalagunen txokoa
- 34** Teknologia
- 35** Aikorrizketa... Dolores ez da inoiz eskolara joan
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda

Alaia fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talari, 5
48170 Zamudio
94 481 01 25

ama taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Estatistikek ezkututzen dutena

Bihozgabeak dira zenbakiak, errealtatea bere gordintasunean adierazteko ezgaiak. Hori hala izanda ere, maiz erabiltzen dira estatistika eran, eta bereziki erakunde publikoek atsegin dituzte. Gobernuen intereseko hipotesiak janzteko, neurrirra eginiko jantzi bihurtzen dira estatistikak.

Urtarrilean Lanbidek plazaratutako datuen arabera, Txorierrin 1.092 langabe daude. Herriz herriko datuak aztertzen hasita, irakur daiteke Zamudion langabezia tasa % 12,9 dela, gainerako herrietan gizonezkoak baino emakumezko langabeak gehiago direla edota Derion zazpi urtean langabezia bikoiztu egin dela.

Datuok eskuetan, 1.092 asko diren ala ez galdetu diezaiokegu geure buruari, edota langabezia tasa beste toki batzuetakoarekin alderatzen hasi. Baina oinarrian ezkututzen dutena da Lanbiden



JUAN ANTONIO TRABUDUA
(ELA sindikatuaren Txorierriko arduraduna)

izena emanda ez dagoena ez dela langabea. Edota ordu eta erdiko lau kontratu dituen emakumea lau langile bezala zenbatzen duela. Bi adibide horiei esker atera dezakegu ondorio, beraz, estatistikek erakutsi baino gehiago ezkutatu egi-

ten dutela. Nahita egin eta interesagatik erabiltzen diren zenbaki bihurtzen dira.

Bistakoa da gure herrietako panorama ez dela lasaigarria. Langabezia hedatuta dago eta lana duten asko ere larri bizi da. Azken horien adibide direnak Zamudioko Parke Teknologikoan aurkitutakoak erraz. Heziketa duten gizon eta emakumeak, egonkortasunik gabe kontratupean, behar adina lan ordu eginez, soldata txikia lortzeko hilabete amaieran. Eta euren buruari ondorengo galdera/eskaera egiten diotenak: "Heldu ahalko gara hilabete akaberara?"

Errealtatea ezagutzeko gonbita egingo nieke estatistikak egiteko enkargua egiten dutenei. Erdu, (adibidez) Zamudioko Parke Teknologikora! Eurek sortutako estatistiketatik kanpo geratzen diren pertsonak ezagutuko lituzkete, inon agertzen ez direnak, baina izan badirenak. Eta hori ezagututa, ausartu ahalko lirateke datuen irakurketa baiko- rrik egitera?

Matematikak

Berria egunkariaren azalako albistea, otsailaren 5ean: "Hizkuntz nagusia den herrietan du atzerakada agerikoena euskarak. % 90 euskaldunak zituzten 56 herrik 1981ean; orain, 13 herrik".

Inguru erdaldunetan, populatuenetan, nabaria da euskararen aurrerakada. Baina zer gertatzen da gure herrietan? Ba, entzun nuen, behinola, matematikak kontra dauzkagula euskaldunok, eta bost euskaldun eta erdaldun bat berdin sei erdaldun direla. Hortik apur bat badago Soziolinguis-

tikaren Klusterraren Ikerketak berretsi eta *Berriak* publikatu dituen datuetan. Esateko modu bat da, jakina, ze ez da eta matematika kontua; jarrera kontua da. Gura bada, *matematika* kontu bat (*copyrighta* Pirritx, Porrotx eta Marimototsena da, nola ez).

Lehengora etorrita: aspaldi gure koadrilan bost euskaldun ginen, eta gehienetan euskaraz egiten genuen. Orain zazpi gara, lehengo bostak eta herrira etorri diren beste bi, eta, esaterako, batek egiten badu batueraz eta besteak ez badaki, bagara sei euskaldun gehi, seguru, euskaraz egitea gu-



IGOR ELORDUI
(Kazetaria eta euskara irakaslea)

rako lukeen beste bat. Zazpi gara. *Matematika* behar dugu egin, hortaz. Gure herria, gure hizkuntza, eta gure lagunak maitez.

ERREKA
BONDO
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Zapatu internazionalistak antolatu dituzte Lezaman

Egitasmoa Lezamako Gazte Asanbladak antolatu du. Azaldu diguten bezala, helburua da gatazkan dauden herrialdeen egoera ikuspuntu hurbilago batetik ezagutzea, eta ohiko bideetatik jasotzen duten informazioa kontrastatu eta osatzea. Horretarako, egitarau zabalak prestatu dute otsailaren 21etik martxoaren 28ra bitarteko; hitzaldiak, erakusketak eta musika saioak, tartean. Ekintzak zapatuetan egingo dituzte eta bertan adituek hartuko dute parte.

Esan bezala, Zapatu internazionalistek otsailaren 21ean eman zieten hasiera. Grisson tabernan, Katalan Herriak eduki zituzten hizpide eta Dj Albert ere aritu zen han. Otsailaren 28an,

19:00etan, Ukraniari buruzko hitzaldia egingo da Oxangoiti tabernan eta argazkiak ipiniko dira ikusgai. Martxoaren 7an, Saharako gatazka aztertuko dute Enaitz tabernan. Hitzaldia 19:00etan hasiko da eta tea dastatzeko aukera egongo da.

Bestalde, Kurdistanen gaineko hitzaldia egingo da martxoaren 14an, 19:00etan, Oxangoiti tabernan; eta Moebius Sound Project taldeak kontzertua emango du martxoaren 21ean, 21:00etan, Enaitz tabernan. Azkenik, Latinoamerikaren egoera aztertuko dute martxoaren 28an, 19:00etan, Grisson tabernan. Horretarako, poesia errezitaldia eskainiko da.



Mendi argazki lehiaketa

Gailur Lezamako mendi taldeak hirugarren aldiz antolatu du lehiaketa, eta bertan 18 urtetik gorako edozein bazkidek hartu ahaliko du parte. Kategoria bi bereizi dira: paisaiak eta erretratuak, banakakoak zein taldekoak. Argazkiak 2015. urteko ekintzetan ateratakoak izan beharko dira eta formatu digitala eduki beharko dute, bai zuri-beltzean, bai koloretan. Lanak gailurmt@outlook.com helbide elektronikora bidali beharko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu ahaliko du kategoriariko eta irteerako edo ekintzako. Argazkiak bidaltzeko epea abenduaren 13an amaituko da eta zehaztu beharko da egilearen izena, ekintzaren eguna eta kategoria. Mezuaren gaian "III. Lezama Gailur Argazki Lehiaketa 2015" idatzi beharko da. Guztira lau sari emango dira; sari bi kategoria bakoitzeko. Irabazleek 45 euroko txartel bana jasoko dute saritzat, eta 30 euroko txartel bana, bigarren tokian gelditzen direnek.



GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Osuari-zerbitzuak & Hortz-zerbitzuak
HORTZ-IMPLANTUAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HABURAK ZEIN HILDUAK

Dr. Aritz Iturriz, T1 - 1. erd. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Derio

Martxoak 2tik 14ra

–“Berdintasuna eta maskulinitate berriak” erakusketa, Kultur Birikan. Piper txuriak taldearen eskutik.

Martxoak 5, eguna

–19:00: “Emakumeak euskal dantzetan” hitzaldia, Kultur Birikan. Oier Araolazaren eskutik. Lainomendi taldeak antolatua.

Martxoak 8, domeka

–11:30: Berdintasunaren aldeko ibilaldia, frontoitik. Izena ematea, kiroldegian eta Kultur Birikan.

–13:15: Adierazpena irakurtzea.

Martxoak 10, martitena

–17:00: “Desgaitasuna duten emakumeak: gu gabe ez dago aurrera egiterik” hitzaldia, Kultur Birikan. Fecor, Berdintasun Arloaren eskutik. Sutondoan elkarteak antolatua.

Martxoak 11, eguaztena

–19:00: “Maskulinitate berriak” hitzaldia, Kultur Birikan. Piper txuriak taldearen eskutik.



Lezama

Martxoak 6, barikua

–19:30: *De aquí y de allá antzezlan*, Kultura Aretoa. Ausartak antzerki taldearen eskutik.

Hamaika ekitaldi, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko

Emakumea eta berdintasuna protagonista dituzten ekitaldiz beteta dator martxoa: antzerkia, hitzaldiak, musika, erakusketak... Izan ere, Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da, eta egun horretan emakumeen borroka gogoratzen dugu eta eskubideak aldarrikatu, gizartean gizonak dituzten baldintza berberetan parte hartzeko. Hurrengo lerroetan, Txorierriko elkarteak eta erakundeak antolatu dituzten ekintzak dituzue.



Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA - JATETxea

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 + 1º A.
DERIO

Telefona: 944 543 705

Albaitaritza

HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

LARRIALDIAK: 2-4 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

Zamudio

–“Lilazko martia, emakume idazleak” lehiaketa, liburutegian. Emakumezko idazleen liburuak edo emakumearen eta berdintasunaren gaineko materiala jasotzen dutenek zozketa batean hartuko dute parte. Berrogei euroko txekia zozketatuko da, Zamudio liburu-dendan gastatzeko.

–“Neska eta mutil abenturazaleak” lehiaketa, liburutegian. Neska abenturazaleen inguruko liburuak jasotzen dutenek zozketa batean hartuko dute parte. Berrogei euroko txekia zozketatuko da, Zamudio liburu-dendan gastatzeko.

Martxoak 6, barikua

–18:00: *Juanita Kuxkux* ipuin saioa, Ludotekan. Maite Frankoren eskutik.
–19:00: Bizkaiko Emakume Cup txapelketa, frontoian.

Martxoak 7, zapatua

–11:30: *Batak panpinak, besteak superheroiak* umeentzako ipuin saioa, liburutegian. Kontukantoi taldearen eskutik.

Martxoak 9, astelehena

–20:00: “Emakumea eta bertsolaritza” hitzaldia, Zamudiotorren. Nerea Elustondoren eskutik. Lagatzu euskaratik antolatua.

Martxoak 13, barikua

–19:00: Antzezlanak, Zamudiotorren.

Martxoak 14, zapatua

–11:00: Harremanak lantzeko tailerra, Gazte Estazioan.

Larrabetzu

Martxoak 1etik 8ra

–16:00-20:00: “Emarock” emakume musikarien erakusketa, Anguleri Kultur Etxean.

Martxoak 5, eguna

–19:00: “Euskal andrazkoen animazio zinea” hitzaldia. Anguleri Kultur Etxean. Bego Vicarioren eskutik.

Martxoak 6, barikua

–17:00: Umeentzako ekintza berezia, Ludotekan.

–19:00: Bertso saioa, Hori Bai gaztetxean.

–22:00: Liberen kontzertua, Hori Bai gaztetxean.

Martxoak 7, zapatua

–11:00: Mendi ibilaldia eta hamaiketako-berbaldia: Emakumeen aurkako jazarpena 1936ko altxamendu faxistan.

–20:00: Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez, Hori Bai gaztetxean.

–22:00: Izaro eta On taldeen kontzertua, Hori Bai gaztetxean.

Martxoak 8, domeka

–13:00: Manifestazioa, plazatik.

–14:30: Belaunaldi guztietako emakumeentzako bazkaria, Gure Etxean.

–18:00: *Non gaude?* antzezlanak, Anguleri Kultur Etxean. Lakrikun taldearen eskutik.



Sondika

“Desioen lorategia” tailerra, Ludoteka IIn.

Martxoak 8, domeka

–Pankarta-Collage eta begiztak banatzea, Gaztetxean.

Martxoak 13, barikua

–Berdintasun rallya, Gaztetxean.

Martxoak 22, domeka.

–Berdintasunari buruzko filma, Gaztetxean.

Loiu

Martxoak 10, martitzena

–18:00: “Gehitu+tu Photocall” umeentzako ekitaldia, Elotxelerriko zentro zibikoan.

Martxoak 11, eguaztena

–18:00: “Gehitu+tu Photocall” umeentzako ekitaldia, Zabaloetxeko ludotekan.

KURREGOITI
JATETXEA
Laurietako etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteaumegaili.com

elekma
LURRATZEREN BAT OLUPEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TROKAK
Lehenengo mailak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarri etorbidea, 25/3.H • 48180 Loiu
T: 944 539 232
www.elekma.es

RPS: 184/18
OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com
Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
B22 formatu

Antzerki eskolan izena ematea

Txorierriko Euskara Elkaratek eta Mankomunitateak Txorierriko Antzerki Eskola ipini dute martxan. Antzerki eskola euskalduna da, 16 urtetik gorakoei dago zuzenduta eta ez dago bertan parte hartzeko adin-mugarik. Irakasle Josu Camara aktorea eta Kukubiltxo taldearen zuzendaria ibiliko da. Egitasmoak hainbat helburu ditu: antzeztu, ondo pasatu, euskaraz gozatu, lotsa galdu, sortu, adierazi, ikasi eta lagun berriak ezagutu, besteak beste. Azaldu diguten moduan, ordu biko saioa egingo da astean behin, Derioko Kultur Birikan. Eguna eta ordua parte-hartzaileen eta irakaslearen artean zehaztuko dira. Izena ematea martxoaren 16ra arte egongo da zabalik eta interesdunak bere herriko euskara elkartearekin jarri ahal dira harremanetan, txorierr.antzerkia@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali, edo 688 69 36 55 telefono zenbakira deitu. Era berean, Facebooken bitartez ere egin daiteke izena ematea eta informazioa eskuratu: Txorierriko Antzerki Eskola.



Emakume pilotari txapelketa, lehen aldiz Bizkaian

Bizkaiko Pilota Federazioak eta Zamudioko Udalak Bizkaiko Emakume Cup antolatu dute. Itxuraz, pilota jaialdi arrunta ematen du, Txorierrin hainbat aldiz egi-ten diren horietako bat. Hala ere, txapelketa erabat aitzindaria da, Bizkaiko emakume esku-pilotarien lehen txapelketa baita. "Pilotan emakumeak egon badaude, baina palan jokatu dute beti. Oraingo honetan neskek eskuz eta senior kategorian federatuta daudela jokatzen dute", esan digu Iker Amariak Bizkaiko Pilota Federazioaren presidente ordeak.

Txapelketa urtariletik eta otsailera bitartean jokatu da, eta finalak martxoaren 6an ikusi ahalko ditugu Zamudioko frontoian, Emakumeen Nazioarteko Eguna baino egun bi lehenago: lehenengo, 3. eta 4. postuak jokatuko dira; eta ostean, 19:30etatik aurrera, final handia. "Guk indartu nahi dugu emakumearen presentzia kirolean, batez ere pilotan, eta horregatik aukeratu dugu data hori txapelketa jokatzeko". Guztira, 14 bikote sartuko dira lehian: 10 bikote Txokoan Larrabetzuko emakume pilota elkarteak kideak dira; beste bi, Zornotzatik datoz; beste bat, Munitibartik; eta beste bat, Amorototik. "Maila oso parekatua da eta nekez jakin ahal dugu nortzuk diren faboritoak".

Euskal Telebistak finala emango du martxoaren 8an, Emakumeen Nazioar-



teko Egunean, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Beste tokiko kate batzuek –Hamai-ka Telebista, Telebilbao, Oizmendi eta Te-
le7– ere eskainiko dute emanaldia. "Oso pozik gaude, telebistak ekitaldia Euskal Herri mailan zabaltzeko aukera emango digulako. Txapelketa honetan estreinako aldiz grabatuko da emakume esku pilota-rien partida bat. Aitzindaria izango da".



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikasteko
Aisialdirako landak - Apoiatze zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

BOLALEKU
JATETXEA

Garaiak: 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Facebook

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio de Origen

**Berka-
lo Txakolina**

Gaitolteza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolteza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

Datuak online trukatzeko hitzarmena

Lankidetzaz-hitzarmenari esker, Eusko Jaurlaritzak eta Txorierriko Mankomunitateak informazioa, datuak eta zerbitzu elektronikoak partekatuko dituzte. Horretarako, elkarrengarritasun sistema bat erabiliko dute. Sistema horrek aukera ematen du paperezko ziurtagirien eta gainerako agirien ordezkari datu-transmisio elektronikoak erabiltzeko. Gainera, partekatu den informazioaren benetatasuna, osotasuna, isilekotasuna, eskuragarritasuna eta kontserbazio-baldintzak bermatzen ditu.

Azaldu duten moduan, hitzarmena beste urrats bat da Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legea betetzeko. Lege horren arabera, erakunde publikoek bide elektronikoak ipini behar dituzte herritarren eskura, horiek Administrazioarekin harremanetan jarri ahal izateko. Era berean, informazioa trukatu behar

dute, herritarrek izapide administratiborak errazago egin ditzaten.

Erakundeek ustez, hitzarmenak onurak ekarriko dizkie bai herritarrei, bai Administrazioari. Hala, herritarrek ez dute leku batetik bestera ibili behariko agiriak eskuratu eta aurkezteko, edota erakunde batean baino gehiagotan eskaerak tramitatzeke. Izapide administratiboetan edo ziurtagiriak eskatzerakoan aurkeztu beharreko agiri-kopurua ere murriztuko da, eta zerbitzu gardenago eta errazago bat jasoko dute. Bestalde, erakundeek esanetan, Administrazioaren eraginkortasuna hobetuko da, kostuetan eta egoitzetan aurreztuko da, lan-zama arinduko da eta informazioaren kalitatea hobetuko da.

Lankidetzaz-hitzarmenak lau urteko iraupena du eta urtez urte luza daiteke modu automatikoan, gehienez 15 urtez. Ez dauka koste ekonomikorik aldeetarako.



Osasunaren aldeko lasterketa eta martxa

Ekintza Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako apirilaren 12rako. Izena ematea martxoaren 9tik 31ra egin daiteke Loiu, Lezama eta Larrabetzuko liburutegietan, Sondika, Derio eta Zamudioko kiroldegietan eta Mankomunitatean. Lasterketa eta martxaren egunean bertan ere eman daiteke. Helduek bost euro ordaindu behar dute; eta hiru euro, 14 urtera arteko umeek. Jasotako dirua Txorierriko elikagai bankuei emango diete. Bestalde, kamisetak eta dortsalak banatuko dira parte-hartzaileen artean.

Ibilbidea Loiu hasi eta Sondikan amaituko da. Helduentzako ibilbideak 9,8 kilometro edukiko ditu; eta umeentzakoak, sei kilometro. Helduen martxa eta martxa-txikia goizeko 10etan hasiko dira; eta lasterketa goizeko 11etan. Bestalde, doako autobusa ipiniko da Sondikatik Loiuara joateko. Goizeko 9etan aterako da Gorondagane kiroldegitik. Lasterketa amaitzen denean, puzgarriak egongo dira eta Loiuara itzultzeko autobusa ere ipiniko da.



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

ANKAPALU



LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO
Telefonoa: 944 543 705

Peluceria Estetika



GOI-ALDE

94 455 81 44
Anguluri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

Karraderan II. mendi lasterketa



Burdinazko Harresian Karraderan mendi lasterketaren bigarren edizioa antolatu du BHK Karraderan Larrabetzuko kirol eta kultur elkarteak, eta bertako Udalaren laguntza izan du horretarako. Hitzordua martxoaren 14an izango da, Larrabetzun. Iaz, 285 korrikalarik hartu zuten parte lasterketan, eta, antolatzaileen aurreikuspenen arabera, aurten gainditu egingo da kopuru hori. Kirolariak herrikoak, inguruko herrietakoak eta kanpotik etorritakoak izango dira, etortzekoak baitira Asturiasetik, Galiziatik, Madriletik, Aragoitik... Aurten, iaz ez bezala, kategoría bitan banatuko dute sailkapena: alde batetik, seniorrak, 18 urtetik 39 bitartekoak; eta bestetik, 40 urtetik gorakoak.

Ibilbideari dagokionez ere badira berritasunak. Esate baterako, BHK II. mendi lasterketan, bunker baten barrutik pasatu beharko dute parte-hartzaileek, baita zenbait zuloen barrutik ere. Gai-

nera, mendi lasterketa den heinean, antolatzaileek murriztu egin dituzte asfalto-tarteak, eta korrikalariak batez ere mendi bideetatik ibiliko dira. Betiko moduan, Larrabetzu inguratzen duten mendietan egingo da proba, eta hauek dira igoerarik aipagarrienak: Gaztelumendi (323 m), Arrizurigane (326 m), Sanmartingane (302 m) eta Bizkargi (565 m). Lasterketak 32 kilometroko luzera eta 1.630 metroko desnibel positiboa du. Gutxi gorabehera ordu bi eta 40 minutu emango dute korrikalariak lasterketa bukatzeko.

Lasterketa goizeko 9,30etan hasiko da herriko plazan. Korrikalariak martxan dauden bitartean, umeentzako jolasak egingo dira plazan bertan. Ondoren, sari banaketaren ostean, iaz ez bezala, herri bazkaria egongo da, korrikalari, boluntario, antolatzaile eta bertan egon nahi duen edonorentzat. Azkenik, egunari bukaera on bat emateko, erromeria an-

tolatu dute, parranda eder bat egiteko asmoz. Oraindik ez dute erabat zehaztuta, baina lasterketaren haritik, BHK Karraderan kirol eta kultur elkarteko kideek kultur-egitarau oparoa antolatuko dute lehiaketaren aurreko egunetan.

Kirola baino gehiago

Burdinazko Harresian Karraderan II. mendi lasterketa ez da kirol proba hutsa. Bere izenak iradokitzen duen moduan, lehiaketak memoria historikoa lantzea du helburu, eta Euskal Herriaren historia ulertzeko ezinbestekoak diren gertakariak ekarriko ditu gogora. Horren haritik, ibilbidea Gerra Zibilean Bilbo babesteko eraiki zen Burdinazko Harresitik igarotzen da. Eta parte-hartzaileek defentsarako eraiki ziren bunker, lubaki zein kobak ikusteko aukera izango dute.

Informazio gehiago:

www.karraderan.org

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINETOAK OBRAN HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 85
639 57 98 48 - 639 58 25 47

CONSTRUCCIONES VALDUEZA
josevaldueva@gmail.com 609 97 15 14
ERABERRITZEAK
IGELTSEROTZA, ORO HAR
Fatxada termikoak eta akustikoak



Bikingoek hartu dute Txorierri?

Bai, eta Freddy Krugerrek, eta Malefikak, eta sorginek, eta mexikarrek, eta indiarrek, eta arrantzaleek... Baina ez kezkatu, larria izan ez da-eta. Inauteriak izan dira otsailean, bailaran, eta maskarak eta mozzorroak atera ditugu kalera. Aukera ona ondo pasatzeko eta egun batzuetan beste pertsonaia batzuk izateko.

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.flickr.com/photos/jongoikoh



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



**94 455 56 19** Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



Albaitaritza



DERIO

HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaja)

LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abandutuz: 1815

"Tradizioak bizirik badaude, aldatu

PATXI LABORDA | dantza irakaslea eta neguko folklorea aditua

Mozorroa erantzi berri dugu, eta maskara kendu. Baina badakigu zergatik mozorrotzen garen? Lainomendi Derioko dantza taldeak Patxi Laborda neguko folklorea aditua gonbidatu zuen otsailean, aurreko galderari erantzuna emateko. Berbaldi didaktikoa izan zen eta dantzari batzuk hizlariarekin batera aritu ziren. Hitzaldi dantzatua eduki genuen emaitza.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Oihane Goienetxe

Zergatik mozorrotzen gara?

Horri erantzuteko, lehenik eta behin ulertu egin behar dugu inauteriak zer diren. Antzinako inauteriekin alderatuta, gaur egun gauza asko mantentzen dira, batez ere estetika aldetik. Garai batean estetika horren atzean bazegoen funtzio bat eta gaur egun hori birziklatu egin dugu. Garaiak ezberdinak dira: XXI. mende-

an jakin badakigu udaberria era natural batean etortzen dela, elurra zer den ere badakigu... Lehen ez zegoen ezagutza zientifikorik, eta gauzek naturarekin zuten harremana. Hori galdu egin da gaur egun.

Inauteriak betiko jaiak dira. Noiztik egiten dira Euskal Herrian?

Galdera bikaina da, baina ez dago data jakinik. Inauteriek ekinokzioarekin dute zerikusia eta horren inguruko erritoak

herri guztietan ospatzen dira. Ziklo aldatetari lotutako erritoak dira eta horiek kultura guztietan daude.

Eta nolakoak dira inauteriak Euskal Herrian? Zerk bereitzen ditu?

Geologian lurra aztertzen denean, hainbat geruza daude, bata bestearen gainean, eta han ikusten da aro bakoitzean zer gertatu den. Euskal Herriko inauterietan gauza antzeko bat gertatzen da, hau da, denetarik dugu: inauteri zaharrak; modernoak; gaur egungoak direnak, baina antzinakoen antza dutenak; berri-berriak direnak eta itxuraz oso modernoak direnak... Gainera, gauza berriak asmatu egin ditugu inauterietarako, adibidez, dantza berezi batzuk. Leku askotan euren mantentzen saiatu dira; guk, aldiz, gauza berriak sortu egin ditugu arazorik gabe.

Eta hori ona ala txarra da?

Oso ona da. Tradizioak bizirik badaude, aldatu egiten dira. Tradizioak hil eta jaio egiten dira. Tradizioa antzina egiten



"Euskal Herrian, inauterietan ez dugu berregiterik egiten; gurea jai garaikidea da"

MAS X MENOS
Janari-denda
Prezio paregabeak

Bestorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, orokorrean
Asotomak konsumatuak
Mantentze garbi-ikatzak
Bulegoak eta lokalak
Obrak enpresa garbiketa
Bantzetan
Zaberi bilaka

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraigu Facebook-en

egiten dira"

"Garai berrietara egokitzen jakin behar da. Antzinako erritoak gaur egun egiteak ez luke zentzurik izango"

zen zerbait da eta denboraren poderioz aldatzen edo bilakatzen ez bada, ez da tradizioa, argazki finko bat edo berregite bat baizik. Eta guk inauterietan ez dugu berregiterik egiten, gurea jai garaikidea da.

Eta euskal inauterien artean, ezberdintasun nabarmenak daude?

Bai, badaude komuneko osagaiak: noiz egiten diren, mozorroa gure ingurua imitatzekeo tresnatzat erabiltzea... Baina alde ezberdinak ere badaude, noski. Inauterietako erritoak metaforez josita daude eta batzuk oso nabarmenak dira eta beste batzuk, ez hainbeste.

Gizarte baten isla dira inauteriak? Euskal Herriko inauteriek zer esaten dute euskal gizarteari buruz?

Bai, gizartearen isla ez ezik bere garaia ere badira inauteriak. Gaur egun hiriko inauterietan Spiderman itxurara mozorrotzen gara, esate baterako, baina garai batean pertsonaiak asmatzen ziren, adibidez, Ziripot, Lantz herrian. Gaur egun hori pentsaezina da, baina antzinako gizarte oso ezberdina zen. Inauteriak askatzeko era bat ziren garai batean, baina gaur egun ez daukate zentzu bera.

Edozein gauza egin daiteke inauterietan?

Gaur egun oieskeria txikiak egiten ditugu, baina antzina denetarik egiten zen. Maskara janzten zuenak edozein gauza egin ahal zuen, kontrolrik gabe, eta hori



Dantzaria

Patxi 47 urte ditu eta iruñarra izan arren, Sestaon bizi da. Betidanik interesatu zaio folklorea eta gaur egun aditua da. "Olentzeroa ikertzen hasi nintzen eta handik aurrera Inauteriak, Agate Deuna... Izan ere, haien artean oso harreman estua dago. Folkloreari buruz gehiago jakiteko, dantza talde batean sartu nintzen eta horrela hasi nintzen dantzatzen. Taldean nire zaletasuna lan bilakatu zen eta gero pasio ere bai".

Patxi musikaria eta dantza irakaslea da, baita Aiko taldeko kidea ere. "Gaur egun dantzek plazetan ez dute freskotasunik, antzina zegoen alde ludikoa galdu da. Hori penagarria da eta lehengo sena hori, inprobisatzeko grina edo oieskeria-puntu bat, berreskuratzeko, Aiko taldea sortu genuen". Eta ez, horrek ez dauka gure aldizkariarekin zerikusirik.

arriskutsua zen. Horren haritik, Francoren garaian herri txiki askotan debekatu egin ziren inauteriak, errito paganoak zirelako. Eta ez pentsa herrikoak kexatu egin zirenik. Izan ere, inauteriak aitzakiatzat hartuta, astakeriak egiten ziren: emakumeek beldur zioten kalera bakarrik ateratzeari, mendekuak hartzen ziren, lapurtzeko eta jipoiak emateko aprobetxatzen zen... Horregatik, herriko nagusi askok ez zituzten inauteriak berreskuratu nahi.

Inauteriek betiko arimari eusten diote edo denborarekin galdu dute esanahia?

Garai berrietara egokitzen jakin behar da. Antzinako erritoak gaur egun egiteak ez luke zentzu handirik izango. Espirituari eusten badiogu, ondo dago. Ulertu behar dugu zer ziren inauteriak, zer dagoen horien atzean eta koherentzia izan behar dugu. Gaur egun XXI. mendeko inauteriak dira eta antzinako osagaiak egokitu behar ditugu. Horrela, koherentziari eutsiko diogu, hau da, sinesgarriak izango dira. Bilakaera badago eta hura gure nortasunari lotzen badiogu, inauterien jarraipena bermatuko dugu.



**KAFETEGIA
IMZI
JATETKEA**
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

**HABAGITEGIA
URDATEGIA
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik



OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larraberrí, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

“Errebantxa nahi dut”

PATRICIA CALVO | boxeolaria

Zamudioztar honek 23 urte ditu, eta Aldekoa Zamudioko boxeo taldeko kidea da. Orain dela aste batzuk debuta egin zuen Bizkaiko Txapelketan, zaletu mailan eta minieuli-pisuko kategorian.

t/a: Itxaso Marina

Aizu, zer da minieuli-pisua?

Ba, boxeolariak ezin du 48 kilo baino gehiago pisatu.

Eta zaila da horretan mantentzea?

Nire kasuan, ez, 46 kiloko pisua dudalako (kar, kar).

Beno, eta zelan irten zen debuta?

Uste dut ondo irten zela. Bale, galdu nuen, baina kontuan hartu behar da nire lehenengo borrokaldia izan zela, eta aurkakoa, Ane Rodriguez, beterranoa dela, eta ondorioz, nik baino esperientzia handiagoa duela. Gainera, hanka apur bat txarto daukat eta horrek ere eragina eduki zuen. Baina, egia esateko, uste baino hobeto ateratu zen. Ringera igo baino lehen pentsatzen nuen: *Ama, non sartu naiz?* Baina oso ondo pasatu nuen gero, eta galdu izanak ez dit boxeatzeko gogoia kendu. Ondo ikusi nuen nire burua.

Zergatik erabaki zenuen lehian has-tea?

Ez dakit. Entrenatzaileak esaten zidan inoiz lehian ibiliko nintzela, eta nik esaten nion, ez nuela gogorik, ez zela nire helburua... Baina gogoia piztu zitzaidan egun baten! (kar, kar).

Dena dela, oso denbora gutxi daramazu boxeoan egiten.

Bai, sei hilabete baino ez. Aspalditik nahi nuen boxeoan hasi, baina ez nuen ez denborarik, ez gimnasio bat topatzeko gogorik. Bikotekideak hitz egin zidan Zamudioko taldeari buruz, bera ere hona datorrelako, eta animatu nintzen.

Zer da erakartzen zaituena?

Ni entrenatzera nator, besterik ez, ondo sentitzen naizelako, gustura. Erakargarria da, fisikoki ondo ikusten dudalako nire burua. Horren haritik esan beharra dago batzuk pisua galtzeko datozela, edo jardura fisiko bat egiteko. Era berean, adrenalina erretzen da eta aukera ematen dizu

*“Aurrean
duzunari
begirunea eduki
behar diozu beti”*

*“Gogor jotzen
dudala diote,
baina azkarragoa
izan beharko nuke”*

batzuetan barruan duzun “haserre hori” kanpora ateratzeko. Baina niri gehien gus-tatzen zaidana da lagunak garela, beti, duela minutu bi borrokan ibili izan arren. Aurrean duzunari begirunea eduki behar diozu beti.

Zelan daramatzazu entrenamen-duak?

Astelehenetatik barikura entrenatzen dut, ordu batetik ordu bi eta erdira. Gogorra da, nekatzen zarelako, giharretako mina duzulako... Begira, lehiaketaren osteko astean atsedena hartu nuen, eta zerbait falta zitzaidan... Ba, entrenamendua zen. Hori bai, lehenengo eguna oso gogorra izan zen, gorputz osoko mina nuen! Baina ohitura hartzen da berriro, eta kito.

Zelakoa da?

Kolpeak ematen eta kolpeak saihesten ikasten dugu. Sokasaltoan ibiltzen gara, abdominalak indartzeko ariketak egiten ditugu... Sokasaltoan ibiltzen ikastea apur bat kostatu zitzaidan, baina uste dut nahiko ondo joan nintzela beste guztia barneratzen.

Zelako ezaugarriak eduki behar ditu boxeolari on batek, zure ustez?



Lehen esan dudan moduan, aurrean duenari begirunea erakutsi behar zaio beti. Ringean arerioak izan ahal gara, baina ringetik kanpo lagunak gara, eta borrokaldia amaitzen denean ere jarraitu behar dugu lagunak izaten. Hori da, nire ustez, inportanteena. Arau batzuk daude eta boxeolari on batek ezin ditu arau horiek apurtu. Osterantzean, boxeolaria izateari uzten diolako. Eta gero, noski, teknika dago, baina hori bigarrena da. Kasu egin behar diozu entrenatzaileari, zerbait irakatsi nahi badizu, hori zerbaitengatik egiten duelako: zu kolpeak emateko gauza izateko, eta kolpe bat jasotzen duzunean, ahalik eta min txikiena har dezazun.

Eta zelako boxeolaria zara zu?

Entrenatzaileak esaten didan guztia barneratzen dut, eta praktikan ipintzen saiatzen naiz. Beno, debut egunean zaila izan zen... Mundu guztia zegoen oihukatzen, nire entrenatzailea, beste neskaren entrenatzailea, ikusleak, arerioa ni jotzen... Ahalegindu nintzen kolpeak saihesten, baina ez nuen behar bezain ondo egin... dena oso azkar gertatu zela-



Emakumeen kirola ere bai

Zalaparta sortu zen Patriciak senideei eta lagunei boxeoan arituko zela jakinarazi zienean. "Zoratuta nengoela esan zidaten etxean, egun batean norbaitek kaskezurra hautsiko zidala... Eta lagunek barre egiten zuten: *Zu? Hain beso argaltxoak dituzun hori?* Ez zuten konfiantza handirik nire gaitasunetan... Eta begira, debut egunean lau roundei eutsi nien, e! Hori bai, besteak eman zidan... batez ere hirugarren eta laugarren roundenetan!" (kar, kar). Kirol gogorra dela badaki, eta ekar ditzakeen ondorioak zeintzuk diren ere bai: sudurra apurtu, ebakiak... Baina horrek ez du kikiltzen eta boxeoan gogoz jarraitzeko asmoa duela esan digu.

Emakumeen boxeo gehiago bulztatu behar dela uste du. "Hau gizonez mundua da, eta batzuek uste dute gu ez garela haiek bezain ondo egiteko gauza, ez dugula kalitateko ikuskizunik eskaintzen. Eta hori ez da egia, gu ere boxeolari onak gara. Are gehiago, gizonek baino gogorrago jotzen duten emakumeak ere badaude". Bai, boxeo emakumeen kirola ere bada, eta horren adibideetako bat Aldekoa elkartearen dabilzan 10 emakumeak dira. Hamabost urtetik 45 urtera arteko boxeolariak dira, haiekin ringera igotzera ausartuko zinatekete?

ko. Bestalde, kideek gogor jotzen dudala diote, baina uste dut azkarragoa izan beharko nukeela... Beno, pixkanaka-pixkanaka. Oraindik asko ikasteko dut.

Zeintzuk dira zure planak?

Ni zaletua naiz eta gustatuko litzaidake entrenatzen jarraitzea eta noizean

behin borrokaldiren baten parte hartzea. Baina profesionala izan? Ez, ez... ezta pentsatu ere! Beno, nik errebantxa nahi dut! Ziur nagoelako, nahiz eta berriro galdu, askoz hobeto egiteko gauza naizela. Bai, hanka hobeto dudanean errebantxa eskatuko dut (kar, kar).



Ultrazagi Ibaia Kalea, 1
48160 - DEFRIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK

Apirilaren 21ean eta maiatzaren 5ean eta 28an (18:30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TELKNOLOGIAKO BATXILERGOAK LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Produzioaren Programazio teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen-Heziketa eta Kontrola goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

Gure tailerrak eta laborategiak
ezagutzera etorri

Gizarte zerbitzuak: 2014ko datuak

Gizarteratzea, diru-laguntzak eta prestazio ekonomikoak

	DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA	ETXEBIZITZA GASTUETARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA	GIZARTE-INKLUSIORAKO LAGUNTZAK	CARITASERA AGINTZEA	ELIKAGAIEN BANKURA AGINTZEA
ZAMUDIO	64	30	1	14	41
SONDIKA	62	25	2	14	30
LOIU	23	4	7	2	9
LEZAMA	27	10	1	14	10
LARRABETZU	32	19	0	6	11
DERIO	90	34	1	16	49

Datuak familia-unitateei dagozkie

Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE): nahikoa errekurtsio ekonomikorik ez dutenen oinarrizko beharrianak betetzen ditu.

Etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria: DBEren osagarria, etxebizitza edo ohiko bizitokiari lotutako beharrianetarako.

Gizarte-inklusioko laguntzak: baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta haien oinarrizko beharrianak betetzea dituzte helburu.

GIZARTE-LARRIALDIETAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK	ZAMUDIO	SONDIKA	LOIU	LEZAMA	LARRABETZU	DERIO
	31.319,00 €	36.766,71 €	7.839,28 €	4.898,42 €	11.227,00 €	36.647,58 €

Gizarte-larrialdietako laguntza ekonomikoak: nahikoa errekurtsio ez duten pertsonen gastu espezifikoak betetzen dituzte, gizarte-bazterketa ekiditeko edo leuntzeko.

Nagusiak

	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA	MENDEKOTASUNA BALORATZEA	FAMILIAN BERTAN ZAINDUAK IZATEKO LAGUNTZA	TELELAGUNTZA ZERBITZUA
ZAMUDIO	25	43	35	15
SONDIKA	39	37	49	14
LOIU	13	11	25	6
LEZAMA	8	20	27	11
LARRABETZU	9	16	36	3
DERIO	43	48	51	36

Minusbaliotasuna

	ZAMUDIO	SONDIKA	LOIU	LEZAMA	LARRABETZU	DERIO
MINUSBALIOTASUNA AINTZATESTEA	12	2	2	1	2	2
APARKATZEKO TXARTELA	5	11	8	4	4	9



Umeak eta familia

GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEKO ZERBITZUA

Arreta eman zaien familiak

ZAMUDIO	13
SONDIKA	7
LOIU	1
LEZAMA	9
LARRABETZU	4
DERIO	12

13 KASU ITXI DIRA

EBALUAZIOA, DIAGNOSTIKOA ETA ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUA

Kasu berriak:

ZAMUDIO	4
SONDIKA	3
LOIU	1
LEZAMA	0
LARRABETZU	1
DERIO	2

27 KASU LANDU DIRA ETA 6 KASU ITXI DIRA

HELBURUA: Arriskuak, babesik eza eta gizarte eta familia-zailtasunak aurreikustea eta orekatzea.

ONURADUNAK: Euren ardurapean adingabeak dituzten familiak eta helduak.

Problematika, kasuen arabera sailkatuta: lau banantze prozesu gatazkatsu, lau portaera arazo, gurasoen buruko nahaste bat, substantziarik gabeko mendekotasun bat, oposizio-nahaste desafiatale bat, eskola-absentismo bat.

Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza eta Txorierriko Mankomunitateko Esku-hartze Komunitariko Zerbitzua elkarlanean dabilta, gaixotasun kronikoa duten pertsonen jardura fisikoa egiteko eta beren osasuna hobetzatzen. Horrela, bada, Mugiment Txorierri programa pilotua jarri dute martxan.

Egitasmoa Mankomunitateko udalerri guztietan sustatu da eta 12 familia-medikuekin batera egin da lan. Otsailean, mediku bakoitzak 12 lagun aukeratu ditu bere gaixoen artean: 55 urtetik gorako emakumeak eta 45 urtetik gorako gizak. Horiei osasun-azterketa oso bat egin diete eta gaixotasun kardiobaskularrei lotutako arrisku-faktore bat baino gehiago eduki dutenak, hala nola hipertentsioa, kolesterola, odoleko gehiegizko glukosa edo obesitatea, Eusko Jaurlaritzako Kirol-jarduerako eta osasuneko espezialistengana bidali dituzte.

Espezialistek jardura-plan indibidualizatu bat egin dute gaixo bakoitzarentzat. Plana ariketa fisikoak eta bizimodu osasungarri baterako errutinek osatu dute eta hori diseinatzeko orduan hauek hartu dira kontuan: gaixoaren adina, gaixotasuna, gaitasun fisikoa eta udalerri bakoitzean eskaintzen diren jarduerak. Era berean, taldeko jarduerak antolatu dira, parte-hartzaileei orientabideak eta prestakuntza emateko, eta banakako

Mugiment Txorierri: osasuna hobetzeko programa



jarraipenak egingo dizkiete prozesu osoan.

Inplementazio-fase ostean, familia-medikuek beste osasun-azterketa bat egingo diete gaixoei, eta jardura-planaren onurak aztertuko dituzte. Plana maiztaren amaieran amaitzea espero da. Parte-hartzaileek bizimodu osasungarri baterako ohitura-plan bat osatuko dute


beren medikuekin batera, ikasitakoari jarraipena emateko.

Euskadin, jardura fisikorik eza laugarrena da heriotza eragiten duten arrazoen artean. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunaren azken inkestaren arabera, % 31k ez ditu betetzen Munduko Osasun Erakundeak jardura fisikoaren praktikarako ezarritako gutxieneak.

“Orain ez daukat prisarik”

IÑAKI BEITIA | euskaltzalea

Iñaki “Arbildu” izanegaz da ezaguna Txorierrin eta inguruetan. Lauroetan jaioa, gizon polifazetikoa da eta gazte-gaztetik euki dau hartuemon estua euskereagaz eta euskal kultureagaz. Grina handia dau bertsolaritzarako eta urteak daroaz gai-jartzaile. Era berean, etxeko ohiturari eutsi eta zaldiak hazten dauz. Fabrikan be egin dau behar orain dala gitxi arte. Beti korrika ibili dan gizona da, baina nasaiago dabil gaur egun, eta aukerea aprobetxau dogu bera hobeto ezagutzeko.



t/a: Itxaso Marina

Iñaki Beitia "Arbildu" ipini dogu Google bilatzailean eta bertsolaritza munduari lotutako hainbat sarreratan agertu zara.

Bertsolaritzarako sua Mikel Zaratek biztu eustan. Lauroetan ibili zan abade eta gustetan jakon mezatan bertsoak botatzea. *Bertso hau gatxa izango dok* –esan neutsan behin (guk hikaz egiten geuntsan alkarri); *egon trankil, nik irakatsiko deuat bertsotan* –erantzun eustan berak. Amurizagaz be ikastaroren bat egin neban gero. Apurka-apurka lider-zatitxo hori atera jatan eta hasi nintzan gaiak jarten. Lauroetako jaietan ibili nintzan lehenengoz gai-jartzaile, geroago Taket eskolea sortu genduan Mungian eta inguruko herrietan be ibili nintzan gaiak ipinten.

Nondik zabilz gaur egun?

Deitzen deuten lekuetatik: Lauroetatik, Mungiatik, Tximelarre Galdakaoko auzotik... Bizkaiko txapelketetako lehenengo kanporaketetan be hartzen dot parte, eta joan dan urtean Loiu izan nintzan Euskearearen Eguna dala-eta.

Zelango ezaugarriak euki behar ditu gai-jartzaile batek?

Gaiak gaurkotuta izateaz gainera, nire ustez, ingurua eta publikoa be ezagutu behar ditu. Ez dalako bardin bertso-saioa Deustun, Zamudion edo Loiu egitea. Aurrean daukazu publikoa kontuan hartu behar dozu, eta publiko horrek zer gura dauan entzun. Bertsolariak be ezagutu behar ditu, zein gaitan dabilzan ondoen.

Azkarra izan behar da?

Bai, bertsolaria bera azkarra dan moduan. Eta lan guztietan lege, jakin behar dozu zeren gainezan zabilzan.

Ezinbestekoa da bere papera?

Duda barik. Bertso-afarietan eta, bertsolariak librean ixten dira batzuetan. Ingurua ezagutzen ez badabe, gaurkotatzen daukien gaiak erabiliko dabez, baina zer gertatzen da horreek agortzen diranean? Hori da hain zuzen be gai-jartzailearen papera. Gainera, saioa motel badoa, gai bat edo bestea sartu daiteke, mobimendua emoteko edo publikoari barre eragiteko. Izan be, gai-jartzaileak publikoa konektatu behar dau bertsolariagaz. Ez da bakarrik gaia ipini eta hor konpon, ez. Adi egon behar zara publikoa gustura dagoan, saioa luzetxua ala laburra dan...

Badago gai txarrik?

Nik esango neuke batzuetan badagozala gai desegokiak, baina ez txarrik. Gertatu daiteke, esate baterako, gai bat oso polita dala pentsetea, baina gero saioa uste bezain ondo ez urtetea. Burura etorri jat behin Lizasori ipini eutsien gaia: hiru bertso, armarua zabaldu eta aspaldian erabili ez dozuzan zapatak ikusi dozuz han. Bada, egundoko bertsoak bota zituan! Gero, lehen aitatu moduan, bertsolariak ezagutu behar dira, zelango erraztasuna daukien gai batzuetarako edo besteetarako.

Zelango gaiak dozuz gurago zuk?

Gehienbat egunerokotasunari lotuta dagozanak, errazagoa dalako publikoagaz konektatzea. Baina edozein gai erabili ahal da.

Bertsozale Alkarteak gai-jartzaileen eskolea sustatu eban igaz. Zer deritazu?

Ondo. Euskal Herrian afizinoagaitik egiten dira gauza asko, eta horreei errespetua zor jake, dudarik ez. Bertsolariak eurak, afizino horretatik, tabernetan hasi ziran kantatzen eta, gero, Amuriza aitzindaria izan zan eskolak sortzen eta hobetuz.

"Gai-jartzailea azkarra izan behar da, bertsolaria bera azkarra dan moduan"

tzen. Egin dana hoberako izan da beti eta uste dot gai-jartzaileen eskolea be ildo horretatik doala.

Sasoian dago bertsolaritza Loiu Txorierrin?

Lauroetan afizinoa badago, baina Loiu, berez, ez. Halanda be, harrituta lotu nintzan, eta onerako, jentek Euskarearen Eguneke saioan euki eban erantzunagaz. Beste alde batetik, Txorierrin be badago afizinoa eta publikoa zorrotza da. Plazaz plazako saio askorik ez da egiten, behar bada, baina bertso-afariak egiten dira. Etzahunen eragina be badago hor.

Etzahun aitatu barri dozu, Larrabetzun be Itallen bertso eskola dago, herri ikastetxeetan bertsolaritza irakazten?



Egin lo Delux,
esnatu pozik.

SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

SUITE DELUX .com

LEIOA | DERIO | EIBAR

Leioa: 944 31 11 11 | Derio: 944 31 11 11 | Eibar: 944 31 11 11

kasten da... Zein da bertsolaritzearen, bertsolarien garrantzia, zure ustez?

Gure kulturea da, azken baten. Bertso-lariak eta bertso munduak izugarriko inportantzia euki dabe euskerea zabaltzerakoan. Era berean, bertsolariak daukien kapazitatea be bada harrigarria; eta horretaz konturatzeko, txapelketetara kanpotik zenbat jente datorren ikusi baino ez dago. Izan be, bertsolaria bera espeziala da.

Googlean jarraitu dogu sakontzen eta arbildu.wordpress.com webguneagaz egin dogu topo. Poniak hazten dozuz; Shetland eta mini Shetland errazatakoak. Zelan hasi zinan horretan?


Etxean beti egon dira zaldiak; aitite be beti zaldi gainean ebilela gogoratzen dot. Haragitarako behorrak eta zaldiak ziran, eta hazitarako zaldia be baegoan. Inguruko baserrietakoek behorrak ekarten ebezan beragaz nahasteko. Eta aitak be zaldiak saldu eta erosten ebazan. Aitagaz joaten ginan azoketara eta behin, 17-18 urte nebazala, poniak ikusi genduzan Tafallan. Garai hatan poniak Iparraldean ziran ezagunak, ez hemen, eta guk ernari egoan behor bat erosi genduan, 75.000 pezetan truke. Kuriosoa izan zan, aitari ez jakolako idea bapez gustau, baina lehengusu bati eta bioi afizinoa sartu jakun eta halan hasi ginan poniak hezten eta hazten.

Nortzuek erosten dabez poniak?

Gehienek kapritxoagaitik erosten dabez, umeentzat. Baina azken urteotan lursailtxua dauan etxea egin dabe batzuek, eta ponía oso animalia egokia da han izateko, bedarra jateaz gainera, zaintza gitxi behar dabelako.

Beno, zuk 30 zalditxu dozuz, denporea eskaini beharko deutsezu...

Bai, bisitau behar dozuz, kumea izateko garaian adi egon, arragaz ipini, landaz aldatu... Bere lantxua badau; lan barik ez dagoalako ezer. Alabak laguntzen deust.

Garai baten asko saltzen ziran; gaur egun?

Leku guztietan legez, krisiaren eragina dago hemen be bai. Lehengo moduan ez da saltzen, baina tira, kumeak-eta saltzen doguz. Esan bezala, Iparraldeko zaldia da eta Espainia aldean ez dago hainbeste, eta eskatzen deuskue.

Azoketara joaten zarie, ezta?

Bai, batez be Loiura, Leioara eta Mungiara. Poniak eroaten doguz hara eta umeak hareen gainean ibiltzen dira, eta gurdian.

Haragitarako zaldiakaz be jarraitzen dozu.

Baina gitxi doguz. Hemen ez dago zaldikia jateko ohiturarik, nahiz eta base-

rri batzuetan txahalaren orde zaldia hil, gero urte osoan okelea izateko. Lehen bizpahiru harategi egozan Bilbon, baina pentsetan dot Ermuan dagoala orain lotzen dan bakarra; beste barri bat zabaldu dala uste dot. Kantabria eta Iruña aldean badago ohitura gehiago, Valentzia, Katalunian... Mungian badago paketeak saltzen dauzan mutil bat, Unai; haragi-xerrak, gisateko... Nahiko ondo doakiola entzun dot.

Goxoa da?

Bai, goxoa da eta oso propietate onak dauz; esate baterako, ez dau kolesterolik.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kirmasajak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txaneri etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

HAUR-MODA

TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

TRIPPY
TABERNA

Espezialitatea:
GIN TONIC

Behoko kalea - DERIO

“Bertsolariek eta bertso munduak itzelezko inportantzia euki dabe euskerea zabaltzerakoan”

“Orain arte ezin izan dodanaz disfratau gura dot, eta hori nabil ikasten”

Gai-jartzailea eta ganaduzalea zalarala badakigu, baina zein da zure ogibidea?

Hogeta hamazortzi urte egin dodaz Unileverreko fabrikari, Leioan, eta aurretiko erretiroa hartu barri dot. Mantentze-beharretan hasi nintzan eta handik Kalidadera pasau nintzan. Enpresea ez da oso ezaguna, beharbada, baina Tulipán eta Ligeresa moduko markak esaten badodaz, jenteak ezagutuko dauz. Margarinak eta saltsak egiten dira bertan, maionesak, ketchup... Unileverri esker, mundua ezagutu dot, izan be, Holandako enpresa da eta egoitza nagusia han dagoenez, batzarrak-eta han egiten dira. Europan zehar be badauz lantoki asko eta herri gehienak bisitatu dodaz. Ingelesa be ikasi neban. Makinak muntatzera etozanak kanpotarrak ziran, alemaniarrek gehienbat, eta ingelesez egiten eban. Nik ez nekian eta koskatxu hori sartu jatan: *kinuakaz ezin gara beti ibili* –pentsau neban.

Zelan dator etorkizuna?

Batez be nasai. Bizitzan beti ibili behar izan dodalako korrika: baserria, AEKn izan nintzanean, ikasketak, beharra... Eta familia bat be badaukat: emaztea, alaba bi eta amaginarreba. Aurretiko erretiroa hartzeko aukerea abenduan emon eusten eta orain ez daukat presarik; hori da diferentzia. *Gaur ezin bada, bihar egingo da*, dinozu. Izan be, orain libre nagoala ez dot gauza askorik buuruan sartu gura, ez; orain arte ezin izan dodanaz disfratau gura dot, eta hori nabil ikasten.

Auzoaz harro

Iñaki Beitia Lauroetan jaio zan orain dala 57 urte. Grabagailua mar-txan ipini eta atoan itxi deusku argi bera Lauroetakoa dala, eta harro dago-ala. “Pasa dan egunean edadeko bat-zuei entzun neutsen orain mundu guztia dagoala harro Loiukoa edo Lau-roetakoa izateaz. Baina sasoi baten Lauroetakoa izatea apur bat mespre-txuzkoagoa zan. Hau auzotxu bat da, eta Loiun beti euki dabe harrokeria-puntu hori; Txorierriko beste herri batzuetan euki daben moduan”.

Arbildu baserriko semea da. “Hiru anaia gara. Ni gazteena naz, baina bes-teak baino publikoagoa nazenez, Arbildu izenagaz gelditu naz”. Baserria Pedro de Arbilduak egin ei eban eta Iñakiren aitite be Arbildua zan: Marcos Beitia Arbildua, hain zuzen be. “Mikel Zaratek azaldu eustan ermitan Merin-dadeko batzarrak egiten zirala aspal-dian. Izena hortik dator, antza; harri bil-dua”.

Antolakuntza munduan ibiltea gustau jako betidanik, egunean ego-tea, ikastea eta, ahal dan neurrian, la-guntzea. Euskaltzalea da, eta parte-hartze aktiboa dauka auzoko kultura-

bizitzan, euskal giroa eta euskerea beti bultzatuz. Halan, AEKn hasi zan 17-18 urtegaz, gau eskolak emoten eta Txorie-rriko arduraduna be izan zan. San Migel Lauroetako jaiak orain dala 40 urte hasi zan antolatzen beste auzotar batzue-kaz. “Aurretik be egon zan komisino bat, baina desagertu egin zan diru-laguntza ezagaitik eta guk jaiak berreskuratzea pentsau genduan. Zer antolatu? Bertso-lariak, herri kirolak, herri bazkaria... Orain dala gitxi sari bat emon deuskue Lauroetako jai-batzordeari eta kazetari batek galdetu euskun zein zan sekretua gurea moduko auzo baten hain jai arra-kastatsuak egiteko. Bada, bertokoak kontuan izatea, besterik ez”. San Migel jaiez gainera, Jubilatuen Eguna egiten dabe orain dala 20 urtetik hona, eta bertso-afaria be antolatzen dabe.

Euskerea gehiago erabili beharko litzatekeen arren, Iñakiren ustetan, Txo-rierrin bide onetik goaz eta ekintzak egiten dira. “Behar dogun gauzetariko bat Baserri Antzokia da. Lehengoek ja-rraituko dogu gurean, baina beharrez-koa da leku bat gazteak alkartzeko eta gauzak egiteko. Txorierriko oso ga-rantzitsua izango dala pentsetan dot”.





t: Gaizka Eguzkitza / a: Aner Mentxaka

Euskahaldun!

Goiz-goiz esnatu beharko dugu Txorierrin, Korrika 19an parte hartzeko. Izan ere, Korrika ordu txikitari igaroko da gure herrietatik: Larrabetzutik, 04:50ean; Lezamatik, 05:25ean; Zamudiotik, 05:41ean; Deriotik, 06:03an; Loiotik, 06:24an; Sondikatik, 06:37an; eta Erandiotik, 07:00etan. "Batzuk kexatu egin dira Korrika goizegi etorriko delako. Egia da, baina askoz okerrago izan liteke: imajina ezazu ordu berbera, baina igandean izan beharrean, astearte batean. Korrika ez da gelditzen, norbaitek egin behar du ordu horietan, eta aurten geuri tokatu zaigu. Ondo dago", esan dute Txepetxa AEK euskaltegiaren arduradunek.

Egun berean, martxoaren 29an, aldatu behar da ordua, eta horrek oztopatu egiten du Korrikaren antolamendua. Era berean, hain goiz izateak eragina izango du korrikalarien kopuruan, eta ziurrenik ume gutxiago egongo dira. "Aurreko al-dian, Korrika arratsaldean izan zen Txorierrin, eta haur pilo batek hartu zuen parte, baina aurten gazteek eta helduek hartu beharko dute lekukoa. Ziur gaude Korrika arrakastatsua izango dena bailaran, betiko moduan".

Korrika Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskalte-

Korrikaren 19. edizioa Urepelen (Nafarroa Beherea) hasiko da martxoaren 19an, eta Bilbon bukatuko da martxoaren 29an. Hamar egunetan, 2.161 kilometro egingo ditu, lurraldez lurralde, bailaraz bailara, herriz herri, kilometroz kilometro, eskuz esku. Txorierritik martxoaren 29an pasatuko da.

gien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Hala ere, garai txarrak dira dirua eskatzeko. "Aurten enpresa batzuek ezin izan digute lagundu; herriko taldeek, aldiz, oso atxikimendu handia adierazi diote. Esate baterako, Larrabetzuko tabernariak eta Lezamako eta Zamudioko kultur elkarteak erosi dituzte kilometroak".

Hori Bai, omendua

Korrikak Durangoko azoka omendu zuen abenduan. "Azokak 50 urte beteko ditu 2015ean, eta hori aitzakizat hartuta, haren ibilbidea azpimarratu nahi izan dugu. Durangoko azokak kristoren lana egiten du euskararen eta euskal kulturaren alde". Era berean, Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeak jasoko du Txorierriko AEK-ko esker ona. "Hori Baik ere betetzen du 50 urte aurten, eta eurek ere izugarri bultza-

tu dituzte kultura eta euskara. Esate baterako, garai batean, lokala utzi zigun euskara eskola emateko. Eta ez da kasualitatea Txorierriko aurkezpena aurten bertan egin izana". Aurkezpena otsailaren 20an izan zen eta Txorierrin datozen egunotan egingo diren ekintzen berri eman zuten bertan. Arropa desfilea egin zen eta musika saioa eskaini zuen Daltondarrak taldeak.

Korrikaren aurtengo leloa *Euskahaldun* da. "Euskal Herria euskalduntzeko norberaren eta taldearen ahalmenean sinetsi eta erabil dezagun ahalmen hori. Ahaldundu gaitetzen Euskararen eta euskalgintzaren egoeraz. Batu ditzagun nire, zure, haren ahalagin pertsonalak eta biderka dezagun geure ahalmena auzolanean. Egin dezagun eta eragin. Eta egin eragin", azaldu dute antolatzaileek webgunean.

Korrika Kulturala

Otsailak 26, eguna

–“Hor dago ardoa” ardo-kata, 19:30ean. Mota Gane txakolindegian, Erandio Goikoan.

Otsailak 27, barikua

–Txarriboda bertso-afaria, Loiu. Xabi Paia eta Arkaitz Estiballes bertsolariak arituko dira.

Martxoak 6, barikua

–Arropa salmenta eta kuestazioa. Zamudioko Leizaola Lehendakaria plazan eta Lezamako plazan.

Martxoak 9, astelehena

–Bertso-eskoletako saioa, 18:30ean, Derioko Kultur Birikan.

Martxoak 12, eguna

–“Euskara zaharra gizarte berrian” hitzaldia, Koldo Zuazoren eskutik. 19:00etan, Sondikako Kultur Aretoan.

Martxoak 13, barikua

–Korrikaren aurkezpena, Erandio Goikoan. 18:00etatik aurrera. Kuestazioa, denda, umeen jaia eta afaria, Dandaka tabernan.

Martxoak 14, zapatua

–Gose taldeko kontzertua, Erandio Beikoan, merkatu zaharrean.

Martxoak 15, domeka

–Jai-eguna, 11:00etatik aurrera, Derion: murala pintatzea, kuestazioa, arropa saltzea, umeen jolasak, bazkaria... *Desentxufatuak* antzezlan, Patxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik, 18:30ean, Gurea Aretoan.

Martxoak 19, eguna

–Autobusa jarriko da Urepelera joateko. 10:00etan. Izena emateko, AEK-ko Txepetxa euskaltegian.



Martxoak 22, domeka

–Kuestazioa, 12:00etan, Larrabetzun.

–Korrika txikia, 12:00etan, Loiu.

Martxoak 27, barikua

–Txorierriko Korrika Txikia, 11:00etan, Derion. Institutuko ikasleek hartuko dute parte.

–Korrika Txikia, herriko eskolek antolatuta.

–Bertso afaria, 21:00etan, Lubarrieta jatetxean, Zamudion. Onintza Enbeita, Etxahun Lekue eta Beñat Ugartetxea bertsolariak eta Maite Berriozabal gai-jartzailea arituko dira.

–Txokolatadea, enkantea eta musika eskolarekin. 17:00etatik aurrera, Larrabetzun.

Martxoak 28, zapatua:

–Garagardoa dastatzea eta kontzertua, Hori Bai gaztetxean, Larrabetzun.

–Umeentzako jaia, poteoa eta Korrika bazkaria Casino jatetxean. Sondikan.

–Jai-eguna, 12:00etatik aurrera, Lezaman: umeen jolasak, herri bazkaria, Korrika Txikia...

Martxoak 29, domeka:

KORRIKA EGUNA

–Txokolatadea, Zamudioko Amairu tabernan.

–Txokolatadea Sondikako Txoko Krem-limen.



Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO OKIETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOSTOGINTZA APARTEA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungia eta etxidea 25
Fax: 94 454 14 18 48100 DERIO

Goiko kalea, 2
(sarrera Erriko kalek)
Derio 48160

Marimar
94 454 13 64
670 022 794
marimarggg@yahoo.es

GUETAPENA ETA BENERAPENA

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBARRAZA
Nerea Pedrosa Gela, 117
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



ZAMUDIO MOTOR IDENTICA



94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2. Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

aseguradik gerta

ARROKULARTZA - TANAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

harategia - urdalategia

MIGUEL



ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autoocasion NA



**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

RUBEN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA



Saferdakarri Lantzeri plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

t o k t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Beheia 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

t/a: Itxaso Marina

Zergatik amatasuna ikertu?

Emakumeok gizarte-presio handia izaten dugu ama izateko. Eta ematen du, gainera, emakume osoak izateko, ama izan behar garela. Gizonekin, berriz, ez da halakorik gertatzen. Uste dut mahai gainean jarri behar den kontu bat dela hori, mugimendu feministak gauza asko lortu arren, oraindik badirelako hainbat gauza eraldatzeko; besteak beste, gurasotasun ereduak. Ikerketa tradizionalak, 60ko eta 70eko hamarkadakoek, biologiarekin lotzen dute beti amatasuna, eta bigarren mailakoa da amaren papera. Geroago, genero ikuspuntu batetik hasi ziren ikerketak egiten, eta, haien arabera, amatasuna ez da gertaera biologiko bat bakarrik, eta, gainera, ikerketen erdigunean egon behar da. Azken ikuspuntu hori interesatzen zait, ikuspuntu horretan ama baita protagonista, eta amatasuna gertaera sozial, kultural eta politiko gisa ulertzen baita.

Bost emakume feministaren esperimentzian oinarritu duzu lana.

Ikerketen arabera, amatasuna iristen denean, arlo intimora ere iristen dira ezberdintasunak. Jakin nahi nuen zelan bizi izan duten ama feministek hori, zelan mantendu duten bikotearekin adostutako berdintasun-itun hori. Eta bikote heterosexualak aukeratu nituen, azken batean gizonen eta emakumeen artekoa delako desberdintasun estrukturala. Bestalde, interesgarria iruditu zitzaidan feminismoaren ikuspuntutik aztertzea gaia, uste dudalako amatasuna beste modu batean ulertu ahal dela feminismotik, eta beste amatasun eredu batzuk sortzeko aukera ematen digula.

Zeintzuk izan dira ikerketaren helburuak?

Beti esan digute amatasuna zoragarria dela, baina inguruan ditudan emakumeei askotan entzuten diet kokotaraino daudela hainbat gauzaz, eta inork ez diela inoiz hitz egin gauza txar horiei buruz. Amatasun eredu idealizatu hori desmitifikatzea izan da helburuetariko bat, gauza onez gainera, gauza txarrak ere izaten direla ikusaraztea. Era berean, ezagutu nahi izan dut zer estrategia erabiltzen dituzten emakume feministek bikote-harremantetan sortzen diren ezberdintasunei eta gatazkei aurre egiteko. Izan ere, amatasu-

"Amatasuna e nork bere bu

IRATI FERNANDEZ PUJANA |
gizarte-hezitzailea

Feminismoari eta amatasunari buruzko ikerketa bat egin du sondikoztar honek, eta Emakundek berdintasunaren inguruan antolatutako lehiaketa irabazi du ikerketa horrekin. Martxoaren 8a hurbil dugula, Iratirengana jo dugu amatasuna beste ikuspuntu batetik eza-gutzeko.

na biologikoa eta naturala den heinean, badirudi emakumeak ezer gutxi egin ahal duela, baina ez da hala: ikerketako emakumeek baliabideak dituzte eta haiek amatasuna modu askeago batean garatzeko erabiltzen dituzte.

Feminista izatea lagungarria da ama izateko orduan?

Bai. Ikerketaren ondorio nagusietariko bat da feminismoa ezinbestekoa dela eredu hegemonikotik urrun dagoen amatasun bat garatu nahi bada. Lagungarria delako ezberdintasun egoerak dektatzeko eta horiek eraldatzeko.

Eta zeintzuk dira ama feministek erabilitako estrategiak?

Ama guztiek esan didate amatasuna etengabeko negoziazioa dela. Lehenengo eta behin beren buruarekin, barneko gatazkak ekarri dizkielako, eta beren printzipio eta ideia asko birpentsatu eta birkolokatu behar izan dituztelako; eta gero, bikotearekin. Etengabe dabilta amatasuna birpentsatzen, eta gauza interesgarria da, amatasuna, kontu prib-

tengabeko negoziazioa da, ruarekin eta bikotearekin"



tua dena, kontu publikoa eta politikoa bihurtu dutelako. Hortik abiatuta, bakoitzak bere estrategiak ditu, emozioei oso lotuta daudenak eta, neurri batean, begi bistakoak ere badirenak. Espazioak uztea da, esate baterako, haietako bat. Hasierratik garbi izan zuten bai aitak, bai amak presentzia aktiboa eduki behar zutela umearen hazkuntzari lotutako ardura guztietan, eta modu berdintsu batean,

berdintasuna epe ertainera zein luzera mantentzeko.

Feministak izan ala ez, amak beti daude jomugan.

Gaur egun indarrean dagoen amatasun ereduaren arabera, ama da umearen beharrianak ezagutzen dituen bakarra. Eta hori biologikoa da, gainera; hau da, modu instintiboan daki. Oso eredu idealizatua da hori, eta eskakizun sozialak

dakartza, betetzen oso zailak direnak eta, ondorioz, frustrazioa eta errudun-ustea sortzen dituztenak. Eta ama beti dago jomugan: titia ematen ez badio, txarto; titia ematen jarraitzen badiu, orduan ere txarto; lana uzten badiu, txarto; lanean goizegi hasten bada, txarto... Gure gizartean, amatasuna oso modu estutzaile batean dago pentsatuta. Esaten digute modu zehatz batean izan behar dela, baina faktore sozialak, historikoak eta kulturalak ere hartu behar dira kontuan. Amatasun esperientzia ez delako berdin emakume txiro batentzat edo aberats batentzat, gure amamentzat edo gure ilobentzat... Amatasuna askotarikoa da, bakoitzak ondoen ulertzen duen bezala garatu behar du.

Nondik dator eredu hori?

XVIII-XIX. mendeetan sortutakoa da; izan ere, aurretik amatasuna ez zen hala ulertzen. Arlo publikoa eta pribatua bereizten hasi ziren eta primerako aitzakia izan zen emakumeak hazkuntzari, arlo pribatuari, lotzeko. Komunikabideek, pelikulek... eredu hori islatzen jarraitzen dute gehienbat, baina errealitatea beste bat da, eredu berriak sortzen ari direlako: amatasuna bakarrik bizi nahi duten emakumeak, sexu bereko bikoteak... Uste dut gauzak aldatzeko aukera dugula, bakoitzak bere egunerokotasunean, amek zein aitek... Inportantea delako gizonen ere hartzea parte aldaketa-prozesu honetan.

Amatasun eredu berriak aipatu dituzu.

Uste dut, amatasun ereduai buruz hitz egin beharrean, gurasotasun ereduai buruz hitz egiten hasi beharko genukeela. Umearen hazkuntza amaren kontua bakarrik ez dela esaten badugu, aita ere sartu behar delako horretan. Gainera, euskara hizkuntza integratzailea da, la-gungarria, gurasotasun ereduaz hitz egiten badugu, sexu ezberdinetako edo bereko pertsonen hitz egin dezakegularik, aitaz bakarrik edo amaz bakarrik.

Neska gazte feminista

Hala hartzten du bere burua Iratik. Gizarte Hezkuntza ikasi zuen eta genero indarkerian esku hartzeko master bat egin zuen ondoren. Duela hiru urte Ikerketa Feministak eta Generokoak masterra egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta haren harira ikertu zuen amatasunari eta feminismoari buruz. Bilboko Udalean dabil lanean,

Berdintasun Sailean, eta genero indarkeria prebenitzeko eta bertan esku hartzeko programaren arduraduna da han. "Bai lanagatik, bai interes pertsonalagatik, berdintasunari eta feminismoari lotuta dauden gai guztiek, bizitzaren gai guztiek azken batean, erakartzen naute. Eta buru belarri nabil horretan, denbora osoan".

"Amatasuna oso anitza da eta bakoitzak ondoen ulertzen duen bezala garatu behar du"

Neguaren azken txanpan gaude eta otsailean bere aurpegirik bortitzena erakutsi digu. Hotz ikaragarria egin du eta barra-barra egin du euria. Gainera, urteotako elurterik handiena izan dugu. Elurrak eragozpen handiak ekartzen ditu, bai, batez ere ibilgailuen trafikoari dagokionez. Batzuek arazoak izan zituzten lanera joateko, eskola batzuk itxi egin ziren, bideak garbitu behar izan ziren... Arazoak arazo, ez dago ukatzerik elurrak izugarrizko xarma duenik. Kanpoan elurra mara-mara ari duela leihora begira, txokolate beroa hartzen dugun bitartean. Hori baino zerbait goxoagoa dago munduan? Baietz ez egon. Elurrak gure betiko paisaiak zuriz margotzen ditu eta argazki ahaztezinak ateratzeko aukera dugu. Eta hori egin dugu, kalera atera eta argazkiak egin. Hona hemen emaitza.



Lezama. argazkia: Gaizka Peñafiel.

Derio. argazkia: Jon Landaluze.



Sondika. argazkia: Iratxe Orue.



Sondika. argazkia: Itziar Ibarrondo.



Lezama. argazkia: Jabi Larrañaga.



Larrabetzu. argazkia: Iñigo Gastelu.



Lezamako tren geltokia. argazkia: Natalia García.



Larrabetzu. argazkia: Alberto Albaizar.



SARRERAK AURRETIX EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefona 94.453.64.13

ANTZERKIA



DE CUERPO PRESENTE

Glu glu (komedia, gaztelaniaz)
Martxoak 28, 20:00etan
Prezioa 10 €

ZINEA



ANNIE
118' AG (2D)
Martxoak 7, 18:00
Martxoak 8, 17:00



CINCUENTA SOMBRAS DE GREY
124' EG-18 (2D)
Martxoak 7, 20:30
Martxoak 8, 19:30



EL LIBRO DE LA VIDA
96' EG-7
Martxoak 14, 18:00 (2D)
Martxoak 15, 17:00 (3D)



THE INTERVIEW
120' EG-16 (2D)
Martxoak 14, 20:30
Martxoak 15, 19:30



LA LEYENDA DEL MARTILLO MÁGICO: THOR
80' AG (2D)
Martxoak 21, 18:00
Martxoak 22, 17:00

BIRDMAN
120' EG-16 (2D)
Martxoak 21, 20:30
Martxoak 22, 19:30

YUGO&LALA
73' AG (2D) EUSKARAZ
Martxoak 29, 17:00

LOREAK
100' EG-7 (2D) EUSKARAZ
Martxoak 29, 19:30









*eharra: produktorearen behar-izanen arabera, programazioak aldatuak izan daitezke

2D: 4 € 3D: 6 €



Zamudio. argazkia: Itxaso Marina.



Loiu. argazkia: Oihana Astobieta.



Derio. argazkia: Endika Rabadan.



Larrabetzu. argazkia: Kontxi Pereira.



Sondika. argazkia: Guiomar Gordon.



Bizkargi mendia. argazkia: Haritz Carrera.



www.aek.eus
www.korrika.eus

19.korrika IBILBIDEA

Urepeletik Bilbora • 2015eko martxoaren 19tik 29ra



MARTXOAK 19 OSTEUNA

Urepele	17:00
Bilbo	17:58
Baigorri	19:03
Donibane Garazi	20:08

MARTXOAK 20 OSTIRALA

Maule	00:34
Donapaleu	03:21
Hazparne	06:31
Kanbo	07:36
Ezeleta	08:53
Aihoa	09:25
Dantxaneia	09:45
Urdazubi	09:51
Amalur	11:21
Elzondo	12:06
Irutia	12:23
Almandoz	13:37
Gelbentzu	16:20
Makirriain	18:02
Atarrabia	18:41
Uhartea	18:54
Atarrabia	19:09
Burlata	19:14
Sarriguren	19:37
Mutikoa	20:25
Irueña	20:43

Behobia	14:00
Bera	14:50
Lesaka	15:36
Igantzi	16:12
Ebalar	16:42
Bera	17:06
Ibardin	17:48
Azkaine	18:53
Sara	19:48
Sergere	20:37
Uztartze	22:02
Baiona	23:25

MARTXOAK 22 IGANDEA

Angelu	00:43
Biarritz	01:22
Getaria	03:05
Donibane Lohizune	03:40
Hendaia	05:37
Hondarribia	06:09
Irur	06:48
Lezo	07:13
Pesai Donibane	07:48
Donostia	08:53
Lasarte-Oria	12:31
Orio	14:40
Zarauz	15:31
Getaria	16:21
Zumaia	16:55
Zestoa	17:40
Azpeltia	18:38
Azkobia	19:31
Erezi	20:32
Tolosa	22:52
Legorreta	23:44

MARTXOAK 23 ASTELEHENA

Itsasondo	00:10
Ordizia	00:23
Beasain	00:58
Lazkao	01:23
Okaberria	01:42
Zumarraga	04:04
Urrebu	04:24

MARTXOAK 21 LARUNBATA

Berrioaz	00:03
Irurtzun	01:57
Uztzi	04:10
Leizua	05:02
Berastegi	05:33
Ibarra	07:04
Tolosa	07:11
Amasa-Villabona	08:29
Zurkil	08:48
Aduna	09:01
Andoain	09:14
Umieta	09:53
Hernani	10:19
Asigaraga	11:05
Ereñeria	11:37
Urdazubi	12:23
Irur	13:11

Dñati	06:34
Arrasate	08:00
Arebakaleta	08:25
Eskoriatza	08:50
Aramaio	09:25
Bergara	11:05
Elgeta	12:08
Elorrio	13:05
Abadiño	13:45
Durango	14:10
Iurreta	14:25
Berriz	15:10
Zaldibar	15:40
Malibaria	16:15
Ermua	16:28
Eibar	17:00
Soroluz	17:35
Elgoibar	18:15
Deba	20:10
Mutrika	20:58
Ondarroa	21:38
Markina-Xemein	22:27
Aulesti	23:42

MARTXOAK 24 ASTEARTEA

Leketto	01:30
Ibarangelu	02:49
Elantxobe	03:10
Kortezubi	04:19
Gernika	04:38
Moxika	05:00
Sukarrieta	06:46
Bermeo	07:13
Bakio	08:38
Mungia	09:43
Urduliz	11:38
Gorliz	12:00
Pentzia	12:23
Barrika	12:43
Sopela	13:11
Berango	13:50
Algorta	14:10
Leioa	15:25
Erandio	16:04

MARTXOAK 25 ASTEAZKENA

Zalla	00:20
Aranguren	00:57
Gordexola	01:47
Okondo	02:16
Laudio	02:55
Aiara	03:53
Urdurua	05:55
Amurrio	06:50
Murgia	09:14
Izarra	10:10
Kuartango	10:35
Subijana	11:55

MARTXOAK 26 OSTEUNA

Lodosa	00:51
Andosilla	02:28
Azagra	03:32
Milagro	04:43
Kadireta	05:48
Baliera	06:14
Aketas	06:37
Kabailas	08:40
Ribaforada	09:32
Abilias	10:44
Kaskante	11:23
Tutera	12:21
Caparroso	16:23
Munillo del Cuende	17:20

MARTXOAK 27 OSTIRALA

Irurberri	00:39
Lakuntza	03:00
Espartza	04:53
Ezkartze	05:16
Otsagi	05:34
Abaurregaina	07:11
Abaurrepea	07:41
Garralda	08:46
Auziberr	09:32
Nagore	11:09
Urtotz	13:13
Tebas	15:20
Amizabataga	15:29
Gares	17:39
Zirauki	18:44

MARTXOAK 28 LARUNBATA

Ebauri	00:17
Irurtzun	02:21
Satrustegi	02:53
Lakuntza	04:12
Ebauri-Aranatz	04:44
Altasu	06:08
Zordia	07:06
Egino	07:39
Araia	08:15
Zaldondo	08:54
Agurain	09:26
Dulantzi	11:08
Gasteiz	12:25
Ebebarri-Ibiña	16:29
Ondategi-Goegi	17:07
Murua	17:21
Uidea	18:26
Zeanuri	19:40

MARTXOAK 29 IGANDEA

Ebebarri	00:34
Galdakao	01:10
Usansolo	01:36
Bedia	02:59
Lemoa	03:15
Zornotza	03:41
Larrabetzu	04:50
Lezama	05:25
Zamudio	05:41
Derio	06:03
Lou	06:24
Sondika	06:37
Erandio	07:00
Bilbo	07:23
Amaiera	12:30

EUSKAHALDUN!



Aupa Lezamako pelotariak!

t: Gaizka Eguzkitza / a: Guiomar Gordon

Markel Zabalak 28 urte ditu, eta leltxu Beatok, 26. Txikitan Lezamako Pelota Eskolako ikasleak izan ziran, eta gaur egun monitoreak dira. "Pelotea da Lezamako kirola. Beti euki doguz pelotari onak. Profesionaltasun mailan ez dira oso nabarmenak izan, beharbada, baina zaletuen artean Lezama eta gure pelotariak beti izan dabe ospe ona. Eta horrek horrela jarraitzea gura dogu guk, eta horretarako egiten dogu behar", aitatu deuskue gazteek.

Eskolan sei urtetik 28 urtera bitarteko mutilak dagoz; lezamarrak, gehienak. Eskolan ez dago neskarik. "Orain dala urte batzuk neska pare bat hasi ziran, baina azkenean itxi egin eben. Gatxa da neskak harrapetea", esan dau leltxuk. Eskolakoak guztiak erakarten saiatzen dira. "Orain dala lau zapabost urte ume gitxi euki genduan, eta gehiago lortzeko, Lezamako herri eskolara hurbildu ginan eurek behar egiteko. Gainera, udan pelota tailerak antolatzen doguz".

Ikasleen adinaren arabera, Lezamako Pelota Eskolan jokoaren gorabehera guztiak irakasten deusez mutilei. "Esate baterako, sakea eta korrika egiten irakasten deusez gazteenei. Era berean, pelotea-gaz lotura zuzenik ez daukien jokoak antolatzen doguz, psikomotrizitatea eta teknika lantzeko. Izan be, gure ustez,

LEZAMAKO PELOTA ESKOLA

Azken bolada honetan oso emaitza onak lortu ditue Lezamako Pelota Eskolako mutilek, eta hori atxakiatzat hartuta, hareakaz egin dogu berba. Eskoleak 35 urte daroaz Lezaman pelotarako zaletasunari eusten, eta gaur egun 40 ume inguru batzen dira, astero-astero, herriko frontoian entrenatera.

oso osagarriak eta baliagarriak dira hasi-barrientzat", dino Markelek.

Umeen artean danetarik dago. "Batzuek izena emon dabe eskolan euren kuadrillea be hona etorten dalako eta bakarrik gelditu gura ez dabelako; beste batzuek izugarri gustetan jake pelotea eta, zergaitik ez, profesionalak izan daitezke. Gaur egun, ohiko joerea hau da: pelotan jokatzeari ixtea, futboleant aritzeko. Baina guri kontrakoa gertatu jaku: batzuek itxi dabe futbola, pelotan jokatzeko. Athletic eta futbola oso presente dagoz herrian, eta kalte handia ekarten deusku umeak "lapurtzen" deuskuzalako. Horregaitik, horrelako jokabideek indarra emoten deuskue beharrea jarraitzeko".

Emaitza onak

Eskoleak garai txarrak bizi izan ditu, bai, baina azken lau zapabost urteotan oso talde polita osatu dabe eta emaitza onak

"Futbola oso presente dago herrian, eta kalte egiten deusku umeak 'lapurtzen' deuskuzalako"

heldu dira. Esate baterako, urtarilean Uribe Kostako Txapelketean jokatu zan eta final gehienetan Lezamako pelotariak aritu ziran. Horrelakorik ez da inoiz gertatu, eta Lezaman poz-pozik eta harro-harro dabilz. "Finala non eta herrian bertan jokatu zan eta etxean aritu ziranez, mutilak apur bat urduri ibili ziran. Halanda be, maila ederra erakutsi eben bai txapela irabazi ebenek, bai finala galdu ebenek". Dana dala, eskolako arduradunentzat garaipena ez da garrantzitsua. "Argi dago oso polita dala txapelak etxera eroatea, baina



Ilusinoz beteta

Bai Adrian Gordoni (Sondika, 8 urte), bai Aimar Busketi (Lezama, 9 urte) gustauko litxakie pelotari profesionalak izatea. Eta horregaitik gogor egiten dabe behar. "Frontoian aritzen gara eta askotan kalera joaten gara korrika egitera eta fisikoa lantzerantz. Entrenatzaileak onak dira, eta batzuetan zorrotz jokatu behar dabe gugaz, bestela... (kar, kar)", esan dau Adrianek txantxetan. Euren ustez, Martinez de Irujo da pelotaririk onena, baina Aimarrrek Olaizola bezalako pelotaria izan



“Gurasoa garrantzitsuak dira izugarrizko babeseta laguntasuna emoten deuskuezalako”

finalera iristea be ez da makala, eta horrek agerian ixten dau guk eta mutilok egunero-egunero egiten dogun beharra. Gure ustez, hori garaipena baino askoz garrantzitsuagoa da”.

Eraitza onei azalpena emoteko, monitoreek eskolako kide guztien artean da goan giro polita azpimarratu dabe. “Bikote batek Mungian jokatzen badau, beste guztiak joaten dira Mungiara partidua ikustera eta kideak animetara”. Eta hori lortzeko oso lagungarria da gurasoen jarrea, eta Lezamako eskolan ez dabe

horren inguruko kexarik. “Gurasoak oso garrantzitsuak dira, izugarrizko babeseta laguntasuna emoten deuskuezalako. Euren beti dabilz umeen atzean. Gurasoek horrela jokatuko ez balebe, ziurrenik emaitzak ez lirateke hain onak izango. Benetan eskertzeko modukoa da euren inplikazioa”.

Hurrengo hitzordua Bizkaiko txapelketea da. Martxoan hasiko da ligaxka, eta hori gaintzen badabe, maiatzean izango da finala. Eraitza onak itxaropena ekarten deusez monitoreei, baina euren ez dabe baikorregi azaldu gura izan. “Bizkaia Uribe Kosta baino esparru handiagoa da, noski, eta ondorioz, pelotari gehiago dagoz, hau da, lehia eta maila handiagoak dira. Ahalik eta ondoen sartuko gara lehian, eta, irabazten badogu, ederto. Eta bestela, ez da ezer gertatzen”. Ez, ez da ezer gertatzen, pelotaz disfrutetan daben heinean.

gurako leue. “Atzean zein aurrean jokatzen dogu, baina Adriani aurrelari aritzea gustetan jako, eta niri, atzelari”, esan deusku.

Bikotea aurton hasi da alkarregaz jokatzen, baina emaitza onak berehala heldu dira. Urtarrilean Uribe Kostako Txapelketea irabazi eben benjamin kategorian. “Ez dira pelotaririk teknikoak, baina oso gaxa da euren irabaztea. Gogor jokatzen dabe eta izugarrizko ilusinoa dabe. Poltsikoan beti daroe pelota bigun bat eta edozein hormatan hasten dira jokatzen. Neure burua, euren adina neukanean, ekarten deusez gogora”, esan deusku leltxuk, monitoreak.



Aimar eta Adrian, txapeldunak.

ETXeko LAGUNTZA INTEGRALA

TRUIUONDO ZAMUDIO ZENTRO GERIATRIKOA

Arreta espezializatua, nagusiak zaintzen adituak diren profesionalen eskutik

Hasierako balorazioa. DOAN

689 034 238
www.naguspea.es

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoti ind. 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oitz. Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Gorbeia kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Upeltegira heldu gara eta harrera Jabik eta Esti bere emazteak egin digute. Bisitari mahastietan eman diogu hasiera. Neguan gaude, eta Jabik azaldu digun moduan, sasoi honetan mahatsondoak inausi egiten dira eta zutoinetan lotzen dira, artez hazi daitezten.

Magalarte Zamudio upeltegiak lau hektarea eta erdiko lursaila du eta han landatzen dituzten mahats-barietateak hauek dira: Hondarribi zuri (gehienbat), Hondarribi zuri zarratia, Izkiriort txikia, Izkiriort handia, Munemahatsa eta Riesling. Horrezaz gainera, beste hektarea bi erosten dizkiote beste ekoizle bati. Magalarte Zamudio markaz gainera, Zabalondo marka ere egiten dute 2011. urtetik hona. Marka bien artean, 45.000 botila inguru egingo dituzte aurtan.

Landareek zaintza espezifiko batzuk behar dituztela esan digu Jabik, eta batez ere prebentzio-lana egin behar dela mildiu, oidio eta botritis bezalako gaixotasunei aurrea hartzeko. "Izan ere, gaixotasuna agertzen denean, kaltea eginda dago".

Mahatsa irailean hasten da batzen, kutxetan, eta behar horretan zortzi aste

Txakolinaren ekoizpena e Magalarte Zamudio u

Berbalagunok eta Lagatzu Zamudioko euskara elkarteko kideak Magalarte Zamudio upeltegira hurbildu gara otsailean. Izan ere, upeltegi horri buruz eta txakolina ekoizteko prozesuari buruz apur bat gehiago ezagutu nahi izan dugu. Jabi Aretxabaletak gure jakin-mina asezteko behar beste azalpen eman digu, eta txakolina eta kopaua dastatzeko aukera ere izan dugu bertan.

inguru ematen dituzte. Ostean, txakolina ekoizteko prozesuari ekiten diote. Prozesu konplexua da eta Jabik modu erraz batean azaldu digu. Era berean, prozesuan erabiltzen duten makineria eta bere funtzionamendua eduki dugu hizpide.

Mahatsa batu ondoren, mahats-pikorrak txortenetik bereizten dira eta horretarako makina batean sartzen da maha-

tza. Beren ezaugarriak eta kalitatea kontuan hartuta, mahats batzuk beratzen ipintzen dira zortzi edo hamabi orduan. Mahats horiek kalitaterik hobea dutenak dira, eta beratzeari esker, indartu egiten dira beren zaporea eta beren lurrina. Ostean, prentsara doaz muztioa pastatik bereizteko; eta gero, depositura. Beratzen ipintzen ez diren mahatsak zuzenean doaz prentsara eta handik depositura. Bakoitza andel edo depositu ezberdinetara doa eta han 36 ordu inguru daude, 10-12 gradutan. Tarte horretan hondarrak kentzen dira eta ostean legamia botatzen da, hartzidura-prozesuarekin has-teko.

Muštioa deposituetan hartzitu egiten da. Zenbat denbora uzten da bertan? Bada, Jabik esan digu hori urteen arabera dela. Urte batzuetan, 10 egunekin nahikoa izan dela, baina beste urte batzuetan egun gehiago behar izan dituztela. Hartzidura tenperatura kontrolatu ba-



Magalarte Zamudio markaz gainera, Zabalondo marka ere ekoizten dute 2011tik

Marka bien artean 45.000 botila egingo dituzte aurtan

zagutu dugu peltegian

tean egiten da, 16-19 gradutan, eta dentsitatea egunero hartzen da. Hartziduraren emaitza txakolina da. Ostein, ontzi-aldaketa egiten da, behar beste aldiz. Amaitzeko, nahasketa egiten da eta depositu batzuetan dagoen txakolina Magalarte markarako erabiltzen da; eta bestea, Zabalondo markarako. Nahasketa egin ostean 10 egunean uzten da -3 gradutan. Txakolina iragazi eta eskaeraren arabera sartzen da botiletan.

Bisita gidatuak

Upeltegitik dastatze-gelara sartu gara eta han Magalarte eta Zabalondo txakolinak dastatzeaz gainera, pintxo gozoak jateko aukera ere izan dugu. Magalarte upeltegia bisita gidatuak egiten dituzte, eta upeltegi honi buruz zein txakolina ekoizteko prozesuari buruz gehiago jakin nahi duenak haiekin ipini daiteke harremanetan. Bisita partikularrei zein taldeei zuzenduta egiten dituzte, eta Jata Ondo Landa garapenerako elkarteak martxan ipinitako Txakolibusa egitasmoan ere hartzen dute parte. Proiektu horrek bisitarietara eta enologia turistei Uribeko eta Txorierriko txakolina eta historia hurbiltzea du helburu.

Txakolina eta pintxoak dastatzen dugun bitartean Jabirekin eta Estirekin jarraitu dugu hitz egiten, txakolinari buruz eta kanpoan zein upeltegia behar dituen zaintzei buruz, iazko uztari buruz, eguraldiaren eraginei buruz... Eta hala, txakolin artean joan zaigu goiza. Adituek diote Magalarte Zamudio txakolina prisa barik dastatzeko ardo zuria dela, usain gozoa duela, baltsamikoa, lore zuriena... ahoan suabea dela, indartsua... Zabal-



Datorrena

–Labasua. Martxoak 1, 11:00etan. Artoa labean zelan erre ikasiko dugu, eta taloa zelan egin.

–“Ekipo kronika” erakusketa. Martiak 5, 10:00etan eta 10:30ean, Bilbo-ko Arte Ederretako Museoa. Bisita gidatua.

ondo txakolinari buruz, fruta gustuko txakolina dela diote, eta bertan lurrin zitrikoak nagusi direla. Borobila eta leuna dela, orekatua... Adituen kontuak alde batera utzita, guk esan ahal dugun gauza bakarra da oso-oso gozoak direla, bikainak. Gainera, urte hauetan lortutako sariak gure iritzia berresten dute; Ipar-mendebaldeko Ardoen III. Txapelketan eskuraturako urrezko domina eta International Wine Guide Lehiaketan 2012. urtean izandako zilarrezko domina, batzuk aipatzearren. Baita inguruko azoketan lortutako sariak ere, noski.

Harremanetarako:

630 10 96 86 / magalarte@gmail.com



**berba
lasun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

48190 LEZAMA Bizkaia



S.A.T. LEGU
BERRAVALIAZIOA ETA BERRA-LENDAKA

F: 94 455 64 47

T: 94 455 61 98



HARTEGIA • URDAITEGIA
VICTOR
ARTESAU-ELABORAZIOA

Okeia ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...

Plater aurrekoizatu

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia

94 453 16 17


mtDNAn jatorria duten gaixotasunak ekiditen

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Otsailaren 3an, Komunen Ganberak Mitokondrioen Teknika onartu zuen, enbrioi bat lortzeko hiru pertsonaren DNA erabiltzen duena. Mitokondrioak zelula eukarioto gehienetan dauden organuluak dira, eta horien energia- kudeaketaz arduratzen dira. Zelula bakoitzean zenbait mitokondrio daude, zelularen izaeraren arabera, eta DNA eraztunak dituzte (DNA mitokondrial edo mtDNA).

DNA hau mitokondrioen funtzio- namenduarekin dago erlazionatuta, eta ez izakien ezaugarri eta funtzio- namenduarekin. Izan ere, azken horiekin zerikusia duena zelulen nukleoan dagoen DNA da. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, Erresuma Batuan eztabaida piztu duena, pertsona batzuen ustez, arrazoi erlijiosoak edo etikoak direla eta, ez baita onargarria umeak gurasoena ez den DNA izatea.

Obulua eta espermatozoida elkartzen direnean sortzen den enbrioiari amaren mitokondrioak mantentzen dira bakarrik. Mitokondrio horietatik gure zeluletan dauden mitokondrioak etorriko dira, hau da, gure zelulen mtDNA eta gure amarena berdina dira. Gaixotasun batzuk mtDNAn mutazioei daude lotuta, Ballinger-Wallace sindromea adibidez (diabetes mellitus eta gortasuna), eta aipatutako tekni-



kak horiek bezalako gaixotasunak ekiditea du helburu.

Obuluak gaixorik dauden mitokondrioak dituenen, horiek umearengana pasatuko dira. Teknikaren funtsa gaixotasunik ez duen emakume baten obulua hartzea da, horren mitokondriak erabiltzeko. Horrela, umeak amaren obuluaren nukleoaren DNA izango du, aitaren espermatozoidaren nukleoaren DNA eta emakume emaelearen obuluaren mitokondrioren DNA.

Hori egiteko teknika bi diseinatu dira: bata, emaelearen obuluaren DNA kendu eta amaren obulu baten DNA sartzean datza; bestean, berriz, ama eta aitaren ernaldutako obuluaren pro-nukleoa hartu eta mitokondrioak ondo dituen emaele baten enbrioiari txertatzen da.

Metodo bat zein bestea erabilita, enbrioi bat edukiko dugu, nukleoan ama eta aitaren DNA duena, ohikoa den bezala, baina emaelearen mtDNA duena. Mutazioa eta, beraz, gaixotasuna sortzen duen mtDNA ekidin dugu eta, ondorioz, enbrioi horretatik sortuko den umeak ez du gaixotasun hori jasango.

Hemendik aurrera, eztabaida. Umearen funtzionamendua eta ezaugarriak ohiko genetikaren legeen arabera izango dira; mtDNAn lotutako herentzia, berriz, aldatu da. Eta horrela izango da bere ondorengoei ere bai, neska bada, mtDNA hori pasatuko baitie.

Merezi du? Zein da zuen iritzia?

URSULA TOMÁS ALMAGRO
Psikologoa, Pedagogoa, Logopedakoa

**PSIKOLOGIA
PEDAGOGIA
LOGOPEDIA**

UMEAK ETA
NERABEAK

Hitzordua: **603 755 279**
ursula@cop.es

Pakearen Pl. 3, behe - 48160 DERIO
(Estudios 10 ikastegia)

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz

609 475 746

Mixine, 6. behe
48150 Sondika-Erriola

T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorra - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com



Dolores ez da inoiz eskolara joan

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Inoiz eskolara joan bako pertsona bakarra ezagutu dot: Dolores Ibarreneko. Kontatzen eustan sei urteko laguntxuei itauntzen eutsela –1917an seigaz hasten ziran eskolara– etxera itzultzean: Zer egi-ten dozue eskolan? Isilik egon behar dozue? Maistrea beti egoten da aurreko aldean? Gaur egun ez dozue aurkituko gure artean eskolara joan bakorik.

Ia ehun urte geroago, zer eskatzen deusagu eskoleari? Gazte guztiak euskalduntzea? Lortzen da helburu hori? Irakaskuntzari esker, euskara dakienak

gero eta gehiago dira. Halanda guzti be, jakitea eta erabiltzea ez datoz bat: jakin daiteke asko eta erabili gitxi. Oso errez ulertzeko kontua da hori ze, erabiltzea euskaraz bizitzea da.

Euskaraz bizitzea eskoleari dagokio? Neurri baten bai, baina eguneko 24 orduetatik zazpitan baino ez dagoz umeak eskolan. Zelan bizi euskaraz eskolako orduetan? Horretarako jaramon egin behar jake hizkuntzaren funtzino sozialari eta sinbolikoari edo euskarri afektiboari.

Etiket euskaldun datozenak atxikitze/mantentze-eredukoak dira, hau da, gurasoein ikasiak -hurrengoan aitaturko

ditugu murgiltze-eredukoak. Eta euskara badaki, berak dakianetik ez dakianera ibili behar dau eskolan; dakarrena aberastu eta osotuz. Eskolara erdaldun edo euskaldun heltzen diranekaz metodologia berbera erabiltzea eutanasia linguistikoa da.

Orain ehun urte Dolores Ibarreneko ez zan joan eskolara eta 2015ean be ez da sartuko ikasgelara haren edo haren moduko euskaldunen familiako berbe-tea? Psikologia konstruktibistak dinosku: ikasleak berak eregiten dau ikasketa bere barruan. Beraz, ikasle bakoitzari begira irakatsi behar da.



Etxeko sukaldaritza

Mazedonia-
tortilla

t: Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 400 g fruta heldu: banana, kiwia, mailukia, sagarra, eta latakia anana eta melokotoia.
- 4-6 arrautza (tamainuaren arabera).
- 4 koilarakada esne kondentsatua.
- Mazedonia gustuko jogurt bi
- Orio zurrusta bat.

Prestetako erea:

Frutak txikitu eta latakia uretan ordu pare baten eukiko doguz beretzen. Sagarra gordin badago, dadotan txikitu eta ur apur baten egosiko doguz 2-3 minutuan. Ura kenduko dogu. Arrautzak irabiau doguz. Esne kondentsatua bota, eta barriro irabiau dogu. Frutak gehitu eta nahastuko doguz. Tortilla egingo dogu eta hotzitzen danean, sei zatitan moztuko dogu. Jogurta irabiau eta apur bat ipiniko dogu plateren hondoan. Gaietan tortilla-zatiak ipiniko doguz, eta horreen gainetik be jogurt apur bat botako dogu.

Txipiroi
gisatuak

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 500 g txipiroi (zaituak).
- 4 patata.
- Piper berde bat.
- Kipula bat.
- Tomate heldu bat.
- Berakatz-atal bi.
- Perrexil zehatua.
- 200 ml ardao zuria.
- 3 koilarakada handi oliba-orioa.
- Gatza.
- Piperbeltz ehola.
- Piperrauts gozoa.

Prestetako erea:

Berakatzak eta kipulea zuritu eta mehe-mehe ebagiko doguz. Piper berdea be ebagiko dogu zatitan. Orioa berotuko dogu kazuela baten. Berakatzak eta kipulea gehitu eta azken hori apur bat biguntzen danean, piperra botako dogu. Bestalde, tomatea erditik ebagi eta mamina kenduko deusagu. Patatak zuritu eta zati loditan ebagiko doguz.

Kipulea eta piperra bigun dagozanean, gainontzeko osagaiak botako doguz: patatak, piperrautsa, piperbeltza, gatza, tomatea, ardaoa eta txipiroiak. Su ertainean eukiko dogu dana, txipiroiak eta patatak biguntzen diran arte.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B 48150 SONDIKA 634 410 470
aузokidefincas@gmail.com

Centro Dental
Txorierri
944 711 639

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxel 6, behe - 48150 - Sondika (geltokiararen aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmaldiak: 670 885 885 - www.txorierri.com

**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel.: Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Zer irakurri?

ñoiuh Jose Angel Mentxaka (Liluraturia)

Gaurko liburua komikia da eta lehen binetak New Yorkera garamatza. 1965a da eta Manhattaneko etorbideetik Iruñeko erraldoi eta buruhandiak ilaran doaz. Baina ez daude denak, bertako agintariak erraldoi beltza desfilatzea galarazi dutelako. Ku Klux Klanen garaia da. Hori da komiki honen abiapuntua, hasteko aitzakia.

Esan beharra dago ideia Fermin Muguruzarena dela. Berak dioenez, istorio hau aspaldian, *Euskaldunon Egunkaria* zegoenean, irakurri zuen egunkarian. Artikulua moztu, gorde eta horren harira komikia, abestia eta erakusketa oparitu dizkigu orain. Ferminen estiloa eta grina, Harkaitz Cano gidoian eta Dr. Alderete marrazkietan lagun dituela.

Baina New Yorkekoa abiapuntua baino ez da. Zeren Erraldoi Beltza "dantzatu" behar zuenak, Manex Unanuek, hainbat pertsonaia ezagutuko baitu eta munduko

Black is Beltza

herrialdez herrialde ibiliko baita saltoka. Eta gu berarekin.

Malcon X hil osteko Harlem sutan ikusiko du. Kuban Che Guevararekin egongo da. Mexikon onddoen eraginpean Pancho Villaren abizenak Arango Aranburu zirela jakingo du. Los Angelesen Pantera Beltzekin nahastu. Monterreyn lehen hippyen jaialdian parte hartu. Montrealen "Vive le Québec libre!" De Gaullen mitina entzun. Aljerian "ikasten" ari diren euskaldunen berri izan. Madrilan Che Guevara Bolivian hil dutela jakin... Eta Mossad, KGB, CIA... espioitza, tiroak, sexua... Aspertzeko astirik ez.

Hirurogeigarren hamarkadaren munduaren errepasoa binetaz bineta. Erreferentziaz beteta, batzuk ezagunak niretzat. Xalbador bertsolaria txistuka hartu zuteneko kasu, edo Madrilan irratan entzuten den "espera un momento, voy, voy..."



Baina Montrealen entzuten den "Hey friend... say friend..." eta beste asko...

Bigarren irakurraldia ezinbestekoa egin zait hainbat gauza ulertzeko; eta detaile askotarako, interneten laguntza bilatzea, estimagarria.

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribi 7, behe
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar baten
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JAHARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

Azokak

Larrabetzu

- > Txorierriko Txakolinaren Eguna. Martxoaren 22an.

Erakusketak

Sondika

- > "Arte garaikidea" litografiak. Martxoaren 2tik 30era, Erakusketa Aretoan.

Derio

- > "Ibaialde 2015". Martxoaren 24tik 31ra arte. Martxoaren 24tik 31ra, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Antonio Ricoren eta losu Aretxabaletaren egurrezko lanak. Martxoaren 23ra arte, Zamudiotorren.

Hitzaldiak

Derio

- > "Medikazioa eta auto-medikazioa". Martxoaren 9an, 17:30ean, Nagusien Etxean.
- > "Dibortzioa eta berdintasuna". Martxoaren 23an, 19:00etan, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > "Nerabezaroan murgilduz". Martxoaren 6an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.
- > Euskara jendea. Martxoaren 11n eta 25ean, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.
- > Literaturaz berbetan, Patxi Zubizarreta-ekin. Martxoaren 12an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean. Arrekikili euskara elkarteak eta Udalak antolatua.

- > "Zahartzaroa". Martxoaren 20an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

Ikastaroak

Zamudio

- > Zen meditazioa. Martxoaren 13an, 20:00etan.

Lezama

- > "Komunikatzen ikasi modu lasai, enpatiko eta positiboan". Martxoaren 3tik apirilaren 7ra, Kultura Aretoan.

Larrabetzu

- > Mugimendu kontziente tailerra. Izena ematea, Anguleri Kultur Etxean.
- > Margogintza ikastaroa. Izena ematea: martxoaren 23tik 27ra, Anguleri Kultur Etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > Umeentzako ipuin kontalaria. Martxoaren 5ean, 17:30ean, Kultur Birikan. Izena ematea, liburutegian.
- > *Gernica 1913* antzezlanak. Martxoaren 27an, 20:30ean, Gurea Aretoan.
- > *Una boda, un bautizo y un Elefante* antzezlanak. Martxoaren 14an, 20:00etan, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Txuma Murugarren eta Rafa Acebes. Martxoaren 15ean, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.
- > Opera emanaldia. Martxoaren 17an, 19:30ean, Anguleri Kultur Etxean. Izar Argia abesbatzak antolatua.

Irteerak

Sondika

- > Triano - La Arboleda. Martxoaren 15ean, 09:00etan, eskolako aparkalekuan.

Derio

- > Barakaldo - Pobeña. Martxoaren 15ean, 08:00etan, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Plentzia - Mungia. Martxoaren 29an, 08:00etan, Nagusien Etxean.

Zamudio

- > Arroeta taldeak antolatuta: Toberia ur-jauzia. Martxoaren 15ean; Inernal. Martxoaren 20tik 22ra eta 27tik 29ra.

Lezama

- > Gailur mendi taldeak antolatuta: Santurtzi - Zierbena - Santurtzi. Martxoaren 8an, 08:30ean, Herriko plazan; Sollube. Martxoaren 15ean, 09:30ean, eskolan; Peña Angulo. Martxoaren 21ean, 08:30ean, Herriko plazan.

Bestelakoak

Zamudio

- > Plater-tiroko saioa. Martxoaren 19an, 10:00etan, Teknologia Parkeko zelaian.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 8an, 11:00etan, Udaletxeko plazan.

Larrabetzu

- > Bizkargi dantza taldearen aurkezpena. Martxoaren 6an.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

PATXI
KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Herriko poligonoa | Euzkara 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 507 | info@patxi.com | www.patxi.com

Aislamientos Derio
Tabikeak
Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Aislamiento termiko eta akustikoa
Aierza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientoenderio.com

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

AURTENETXE, S.A.

www.aurtenetxe.es

BELARRA MOZTEKO ROBOTAK
PROBATU EGIN DAITEZKE

VIKING MI 632

1.199 €



HONDA MIIMO

2.159 €



MOTOAITZURRA
BASIC Z-750

Motorra: 6,50 ZP
Hiru abidurako kutxa (2+1)
Ardatz hexagonala

499 €



ALOKATZEA:

MOTOAITZURRAK
BELARRA MOZTEKO MAKINAK
DESBROZADORAK
MOTOZERRAK
MAKINA BIRINTZAILEAK
EGURRA ZATITZEKO MAKINAK
NEKAZARITZA-TRAKTOREAK
KIMATZAILEAK
HAIZE-MAKINAK
HESIA MOZTEKO MAKINAK

PROBATZEKO
MAKINERIA

AUKERAKO
MAKINERIA

% 35 -ERA
ARTEXO
BEHERAPENAK

Sogeon Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18